

EGUIZKIZA'TAR J. U.

GARBITOKIKO
-ARIMAEN-
IĪA



Requiem æternam
dona eis, Domine.

Esual
6.000

N. 2884
R. 34823

ATV
17.783

JAUNGOIKO ZALE'N IDAZTIJAK

GARBITOKIKO ARIMAEN

I L A

SARDÁ TA SALVANY JAUNAK

ERDERAZ IDATZI EBANETIK

EUZKERALDUJA



Grijelmo-Alaŕgun eta Semien irafkolean, Arbolancha,
Bilbao'n 1915'g. urtean.

Victoriæ 24 Octubris 1914.

IMPRIMATUR

✠ Prudentius, Episcopus Victoriensis.

IRAKURĪ EGIZU AONELAN

ge, gi bigun, eřderazko *gue gui* lez: *geldi* =
gueldi: *egi*=*egui*.

x, s̄s̄ lez: *auxe, orixe*: =*aus̄se, oris̄se*.

tx, eřderazko *ch* lez: *etxe txiki*=*eche chiki*.

l, » ll lez: *ilun*=*illun*: *erabili*=*era-*
billi.

r, rr bikotxa lez: *aři*=*arri*: *gaři*=*garri*.

j, itz-bafuan beintzat, *gitxi-gora-bera, y* lez:
bijotz.=*biyotz*: *argija*=*argiya*.

U A R A

Sardá Jaunak érderaz idatzi (1) ebanetik aitu nebazan idaztiño aonetarako gayak; baña sañilan, irakurtaldi bategaz, geyago begiratu barik, idatzi neban ondo neritxona; augatik bein baño sañijago dauřkikezu (2), irakurlea, aonek aren eta arek aonen antz gitxi baño eztaukala.

Azilako (3) ila aonek iru bederatziurén eta iru-urén bat daukaz. Lenengo bederatziurénéan dakuskezu Garbitokija ta arima erukañijai emon geinkioen laguntza, geure ziniskintzako egijak dirala; bigařenak dagertzu (4) zeintzuk diran Garbitokijan ordaindu ta garbitzen diran utsegite ta orbanak; irugařenak, zelako egiteakin lagundu ta sorosi (5) daikeguzan arima gaxuak. Azkenengo iru-urénak darakutzu Garbitokija aintzat ez artzea ta bera-tzazko bildur laregija, bijak kaltegañi dirala ta berez gausa garatza ixan aren. Jaunaren erukija danekots, opagañi be bai-dala.

(1) Idatzi = eskribidu. (2) Dauřkikezu = auřkiřuko dozu.
(3) Azila = zemendija. (4) Dageřtzu = ageřtzen dautzu.
(5) sorosi = sokofiđu.



-:- Egunoro esateko -:-

Lenengo eskarija

Jesu-Kristo neure Jauna, Jaungoiko ta gixon egijazkua, zeure odolagaz erosi ninduzun Salbagile erukioña, egunen baten neure Juez edo Epaikari zořotza ixango zayatazan Jaun zuzena; zeure-aurez eta neure kaltez egin dodazan gaiztakerijak eta zeuri dautzudazan zoř andiak gogoratuta, lotsaz beterik natořkixu zeure aurea, eruki-eske ta parkaziño-bila.

¡O Jesus maitati maitagarija! zeure erijotz garatzean isuri zendun odol ederari begiratu-ta, parkatu egidazu, ařen, neure eskař-txaña; oso-ro damaturik eta luřean auzpezturik eskatzen dautzut, ba, bařiro be egin daistazula orain ar-te sařitan egin daustazun erukija.

Gomutau egixuz zeure Ama kutunak, nire ta beste nire antzeko pekatarijen Ama erukiořak, nire onerako isuri ebazan negar-malko mingotzak; gomutau egixu zeuk, Jaun erukitsu aorek, Garbitokiko arimai dautsazuen maitetasuna; eta arima erukařia-en alde zerbait egin gura dodan ezkerro, esku zabalez emon egidazu egunoroko elizkixun au bijotz garbiz, ziřnesmen bi-

xiz, itxaropen sendoz eta maitetasun beroz egi-
teko bial' dadan eska' eta laguntasuna. Amen.

**Irakuri beite egunari dagokion irakurkixuna
ta ondoren esan beite bost bidar Aita gu-
rea, Agur Marija ta Gloria.**

Egunoroko azken-eskarija

¡Ene Jaungoiko e'ukiofa! apaltasun eta zin-
tzotasunik andijanagaz opa dautzudaz Garbitok-
kiko arima gaxuen alde eta euren neke-miñen
aringa' ta gozaga'itzat, elizkixun aonetako es-
karijak eta egun aonetako neure egite on guz-
tijak. Zeure ontasun neufibagea ta zeure ta ni-
re Amaren atsekabe ta nega' mingotzaka'ik,
arindu ta gozotu egixu, Jauna, Garbitokiko ari-
ma e'uka'ijen neke ta oñazea ta ainbat laste-
fen emon egijozue betiko bake, atsedeen eta zo-
rijona. Zeure esku e'ukitsu aofeitan ipiñi gura
neunkez, batez be, neure guraso, senide, aizki-
de ta ongilen arimak, neure e'uz bial' ba-da,
Garbitokijan dagozanak eta nire laguntasuna-
ren bialixenik geyen daukenak.

¡O neure Jaun e'ukiof eta Aita samu'fa! one-
tsi ta a'rtu egidazuz arima gaxo ta e'uka'ijak
zeuri dautzuezan zo'fen alderako, opa dautzuda-
zan ordaintze ta kituga'ijak, batez be ila aone-
tako egun bakotxean zuzenduko dautzudazan
eskarijak; eta egunen baten ikusi ba'nendi aek

arima gaxuak dagozan egokera lañijan, emon egikedazu, Jauna, orain aentzat eskatzen dauztudan laguntasuna ta egikezu nigaz be, neuk eurentzat opa dodan efukija. Alan ixan bedi.

Lenengo bederatziurena

Lenengo egunerako irakurkixuna
Garbitokija (purgatorijua) daguala geure
ziñesteko egija da

I

Gure ziñestearen arerijorik geyenak ukatu daroye garbitokija. Batzuk esan daroye efiitsuak, erdi-ilunean bixi zanian, amesetan lez, asmauriko ziñeskixuna baño eztala; beste batzuk, emakume maitati, bijotz-bera eta bildur-tijak asmau ta abadeak euren onerako, iñoren lepotik bixi al ixateko, indartu ta zabaldu dabben ziñeskixuna dala; beste batzuk, ostera, esaten dabe, gure bijotzarentzat gauza gañatz eta mingotzegija dalako uste ixatea lufean maitatu dituan senide ta aizkideak betiko galdu dituala; auxegañik gixonaren bijotzak, bere samurtasunaren jakitzat eta bere atseka-bearen gozakaitzat, soñtutako ziñeskixuna dala garbitokija.

Baña ezta aofelan, ene kristiñaba. Garbitokija da geure ziñeskintzako egija, geure Ama Elexa doniak (1) irakasten dauskuzan beste ziñeskayak (*artikuluak*) bexen sendoro ziñestu

(1) Donia=santua.

biaf doguna. Ziñestu biaf dogu, ba, *purgatori-
jua* daguala, Jaungoikua daguala ziñesten do-
gun lez; ziñestu biaf dogu garbitokija, Jaungoi-
ko-Semearen aragitze edo gixakundea ziñesten
dogun lez. Jaungoikuak iragañi ta geure Ama
Elexeak dirakaskun egi (1) au osoro ta zintzoro
ziñesten eztauna, ezta benetako kristiñaba. Eta
egi au ziñetsi ta beraoni jaramon gitxi egiten
dautsana, bada-ezpadako kristiñaba baño ezta.

Pekatu astunean eta Jaunaren aseñian erijo-
tzeak aítzen dituanen arimak, juango dira beti-
ko geztotei edo inpernura; Jaunaren aizkitasu-
nean ilten diranetak, erijotz aúfetik euren zo-
rak osoro kitutu ba-dabez, bertatik eta betiko
igongo dira zerura; baña euren zorak Jaunari
osoro ordaindu ezpa-dautsez, zerura sartu baño
len kitutu biariko dabez, betiko atsegintza ta zo-
rijonera ezin sartu daitekkelako orban eta zorak
daukazan arimarik.

Augatik geure ziñesteak diñausku betiko
zeru ta betiko inpernuez gañera betiko eztan
beste toki bat daguala: antxe arimak euren zo-
rak kitutu ta euren orbanak garbitu dayezan,
Jaungoikuak egiñeko tokija. Aonexeri deritxo-
gu garbitokija, zordun eta orban txikidun ari-
mak, berton garbitu biaf diralako, zeruko zori-
jonera sartu baño lenago. Ziñestu ta autoítu
egixu, kristiñaba, Jesu-Kristo'ren Elexeak gau-
za aonetzaz irakasten dautzuna; bestelan, zi-
ñausle edo ziñeste-galdukoen lagun egingo zara.

(1) Dirakaskun = irakasten dauskun.

II

¡Jesu-Kristo, neure Jaun eta Jaungoikua! ziñestu ta autoörtzen dot zeure Elexeak ziñestu ta autoörtzeko agintzen daustan guzti-guztija. Ziñesten dot, batez be, garbitokija daguala diñastan ziñeskaya, (1) Zeuk Elexeari agertu ta Elexeak, bere irakaslien bidez, niri ta beste kristiñau guztijai, zeure ixenian, irakasten dauskulako; eta egi au ziñesten dodan indar guztijagaz, goörtatzen dodaz ziñeskai aonen eta beste gure ziñeskintzako egi askoren kaltez, Elexearen arerijuak zabaltzen dabezan guzúak.

¡Ene Jaun efukiof eta Jesus maitea! zeure nekauzte edo pasiñoko aurfegunean, zeure Ama atsekabetuak egin eutzun aguf lafi aretan isurri ebazan negar-malko samurakatik eta zeuk zerofek, Amari aguf egitorduan, zeure bijotz maitatijan aftu zendun naibage sakon eta atsekabe mingotzagatik, eskatzen dautzut, afen, indartu ta sendotu daidazula garbitokijatzaz daukadan ziñesmena ta an dagozan arima gauai emon dayozuela euren nekien gozagafija ta bijotzez opa dautsoedan betiko atsedena.

(1) Ziñeskai=*fedeko artikulua*.

Bigaren egunerako irakurkixuna

Geure ziñesteak diñausku geure eskari ta egite onakaz arima gaxuak lagundu daikeguzala.

I

Garbitokija daguala diñauskun ziñesteak berak, irakasten dausku, egitade onen bidez, lagundu daikeguzala an dagozan arima gaxuak, arindu geinkezala euren nekeak eta idegi eurai zeruko atiak. Edozein ziñezteko gixonak, aldioro (1) ta efi guztijetan, euren senitartekoen bat il yakenean, eskatu dautse Goiko-Jaunari, afen, artu egijala bere besarte gozuan il zanaren gogua, luñak artuko eban lez bere gorputz ilotza. Au da asikalditik gaur afteraño, luñean ixan dan gixateri guztijak egin dauna, bere ixateak igitu ta bultzaten daulako gixona ilen alde Jaungoikuari otoi edo eřegu egiřera. Aonelan, gure ziñeskintzak diñauskuna ta gixonari bere ixateak egiñazo dautsana, bat-batera dagoz; bijak diñauskue, ba, garbitokija bai-daguala ta gure otoi, eřegu ta egite onak an dagozan arimaentzat osasungafi dirala.

Bestelan, zeru ta geztotei edo inpernua bai, baña garbitokirik ezpa'lego, alpeřekuak ixango ziran gure aonen aurfetiko gixaldijak, ilen alde

(1) Aldioro = *denpora guztijetan*.

egin dabezan alegiñak: zeruan dagozanak eztauke, ba, lufekoen laguntasun bialrik eta inpernuan dagozanai lagundu gura ixatea alpef-alpefik nekatutea da, euren zoritxafak amairik eztauko-ta. Efi guztijetan, gaur lez antziña be, ilen aldez eskatu ta efegutu ba-da, autoftu bial da efi guztijak euki dabela garbitokijatzazko ziñestea.

Lutero'tafak ukatu eben garbitokija; baña esan lei agoz ukatu ta bijotzez ziñestu egiten dabela; gorpuari laguntzen dautsenian, egiten dabez, ba, geuk egiten doguzanen antzeko eskarijak. Itandu geinkioe, ba: ¡gixonak! ¿eztiñozue garbitokirik eztaguala? Eta garbitokirik ezpa-dago, ¿zetarako egiten dozuez elizkixunok? Ilak zuen laguntasun-bialrik ezpa-dauke ¿zetarako euren arimaen aldez Jaungoikuari eskatzen dautsazue?

Antziñako efi guztijak ilobi edo sepulturetan ipiñi ebezan idazkunak; 1) isfaeltafen erijak, Jaungoiko-Semea gixatu (2) baño len, ilen aldez egiten ebazan eskarijak; Jesu-Kristoren Elexeak, asikalditik gaurganaño arima efukafijen osasunerako egin dituan elizkixunak; argiro diñauskue efi guztijak, aldi guztijetan, ziñestu dabela, geure eskari ta egite onakaz, lagundu ta sorosi (3) daikeguzala gure aufetik il ziranen arima gaxuak.

(1) Idazkunak = *inskriziñuak*.

(2) Gixatu = *gixon-ixatea artu*.

(3) Sorosi = *sokoñidu*.

II

Neure Jaun eta Jaungoikua! zintzotasunik andijenagaz ezagutu ta autoitzen dot zeuk, Jaun ofek, gixon guztijen bijotzetan iratzi ta irafi (1) zendun egi pozgari au. Zeuk, lege zañ eta barijan, argiro irakatsi dauskuzulako, ziñesten dot, neure eřegu ta egiñe onakaz, arindu daikedazala arima gaxuen nekeak, gozotu euren oñaze ta miñak eta idegi neinkijoezala zorijontasuneko atepak.

¡O neure Salbagile ta Irakasle andija, Jesu-Kristo neure Jauna! azkenengo aparijan, zeure ikaslai iragari zeuntsenian euretatik batek salduko zinduzala ta au egingo eban zorigeztokua betiko galduko zala; orduan zeure Bijotz maitale ta eřukitsuak arñu eban tamal eta atsekabe sakon eta mingotzagatik, entzun egidazuz garbitokiko arimaen alde z egiten dautzudazan eskarijak; arñu egidazuz euren zofen alderako opa dautzudazan kitugarrijak; emon egijo ezu arima erukarijai betiko atsedena ta niri, ziñesten dodan lez bixiteko biaz dodan laguntasun eta eskaña.

Irugaren egunerako irakurkixuna
Garbitokija da Jaunaren zuzentasunak eskatzen daun gauzea

I

Jaungoikua artez eta zuzena da: obeto esate-

(1) Irati = *inprimidu*.

ko, Jaungoikua da zuzentasuna ber-bera; iruditu be ezin leike, ba, zuzena eztan Jaungoikua. Baña zuzentasuna da bakotxari beria emotea: ondo egin daunari, sarija; txarto egin daunari, zigofa; artuenak daukazanari, ordaña; zofak daukazanari, semaya. Augatik, zuzena dan Jaungoikuak ipiñi biaf dautso irain eta efubari bere zigof eta nekea, eta eskat ubiaf dau zofen ordezeko kitugafija. Baña arima asko, euren zofak osoro kitutu baga ta euren ofban txikijak osoro garbitu baga, bixitz aonetatik juaten dira. Eta Jaungoikuak, zuzena dalako, zeruetako zorijona emon baño lenago, eskatuko dautse zofak ordaindu dayoezala ta ofbanetatik garbitu daitezala. Aona emen, zelan Jaunaren zuzentasunak eskatzen daun garbitokija.

Zerua zorijontsuen efija ta garbitasunaren tokija da; baña arima ofbandunik zeura saftu al ba'litz, elitzake ixango garbitasunaren tokija; ofbanez ezainduko litzake, ba, bere edertasuna. Jaunak esan dausku bere begijak ofbanik ikusi be ezin dabela ta gixon jaungoiko-zaleak diñauskue ofbandun arimak eurak be, Jaunari atsekaberik ez emoteafen eta euren buruak lotsatuta ez ikusteaafen, eleukiela agertu gurako Jaungoikuaren begijen aufera. Jauna zuzena ta zuzentasun-zalea da, ta arimai eskatzen dautse euren zofaren ordaña: arima gaxuak eurak be zuzenak eta zuzentasun-zaleak dira ta euren ofbanak osoro garbitu ta euren zofak guztiz kitutu afte, eztabe nai agertu Jaunaren aufera: ez-

tabe nai euki zeruko zorijona, guztiz ordaindu arte euren zoña. Aonelan ba, Jaunaren zuzentasunari begiratu ezkeru, eñez ezagutu daikegu egija dala geure ziñesteak garbitokijatzaz diñauskuna.

II

¡O neure Jaun zuzena! zure egite guztijetan agertzen da zure zuzentasuna; baña beste iñoz baño argiruago erakusten dauskuzu, zeure Bijotzak ainbeste maite dituan arimai eskatzen dautsazuenean, azkenengo zurikoraño, kitutu dayela euren zoña. Ziñesten dot, Jauna, ziatz eta zoñotza dala zure zuzentasuna; ziñesten dot Zeuk zeñorek egin zenduala Garbitokija, zetan galdu etzeunkelako, guri geure zoñen ordaña eskatzeko, daukazu eskubidea.

Zeure erijotz auñeko gabian, ogi ta ardao irudipean gelditu ziñakuzanean, erakutsi zeuskun maitetasun bero ta añañijagatik; gure zuganako eskañ txaña ikusirik, zure Bijotz maitakoñak orduan artu eban atsekade izugañijagatik; emon eiguzu altarako Sakramentu guñañijaganako lotsa ta itzal andija ta Zeu, geure Jaun ori, gogo garbiz eta bijotz beroz geure bulañetan añañtzeko bial dogun laguntasuna. Ontxeganik opa dautzudaz, aonetan egin daikedazan irabazteak, arima eñukañijen añderako. Gomutau egixu, Jaun ona, euraen eta gure zorijonerako lurañean gelditu ziñakuzala ta aonetan erakutsi zeuskun maitetasunagaz gogoraturik, emon

egijo ezu garbitokiko arimai betiko atsedena ta guri zeure aizkitasunean bixi al-ixateko grazija.

Laugaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija Jaunaren erukijak egiten daukun eskar edo mesedea

I

Gauzak ariñiketan eta gañetxutik baño gogoratu ezik, begitanduko yaku, bial ba-da, garbitokija ezin ixan daitekela Jaunaren erukijak softuba, bertan kitutu bial dabezan ezkeru zof-dun arimak, bitxiz aonetan guztiz ordaindu ez ebezan zofak; baña astiro ta sakondo gogoratu ta auznartu ezkeru, ezez ezagutu daikegu garbitokija dala arimak Jaunaren zuzentasunari emon bial dautsen azkenengo ordaña ta Jaunaren erukijak arimai, euren bidean, egiten dautsen azkenengo eskar edo mesedea. Eta egiz, erijotzan amaitzen dan lez arimaentzat zeruko zorijona irabazteko aldija, bardin erijotzan amaituko zan, Jaunak gura ixan ba'leu, pekatuen zofak ordaintzeko epea. Jaungoikuak aonelan ebatzi ba'leu bixitz aonetan kitutu bialko ebezan arimak euren zof guztijak: au egin baño len erijotzeak artu ezkeru, betiko zof-dun geldituko ziran; eta zof-dunak zerura ezin sartu daitekezan ezkeru, arima aofei zeruko atepak betiko safatuko yakezan.

Eru astun eta ofban andijetatik garbitzeko

etxaku emoten erijotz aŕterañoko epea baño. Erijotzearen esku baltzak, ogen edo pekatu astunean gagozala, itoten ba-gaitu, betiko zerua galdu eragiten dausku; baña bere aizkitasunean dagozan arimaentzat, bigun, maitati ta eŕukiofa ixan da Jaungoikua. Aldija datoŕnean, epea betetan danean, eztau geldituko erijotzearen besua; baña zoŕdun arimak euren zoŕak ordaindu ta zerura igon daitezcan, berak aŕkituko dau eŕukijak bakarik aŕkitu leiken bidea. Bere aizkitasunean dagozan arimai be eskatzen dautse Jaunak berari dautsen zoŕa; baña luzatuten dautse epea ta erijotz ostean be, emoten dautse, garbitokijan, euren zoŕak ordaintzeko biar daben bitarŕtea. Aonelan, zoŕdun arimak kitutu daikie osoro euren zoŕa ta loŕtu, bestelan betiko galdutzat euki biarŕko eben zeruko zorijona. Argiro dakuskezu (1) ba, kristiñau maitea, garbitokija dala Jaunaren eŕuki bigun eta samuŕari zoŕ dautsagun eskaŕ (*mese-de*) andija.

II

Eskaŕak emoten dautzudaz, neure Jaun eŕukitsua, zoŕdun arimai, ta euren aŕtian nire aoni. egin dautsazun mesede andijagatik; eskaŕak, ene Jauna, bixitz au amaitu ta gero be, ontzat aŕtzen dauskuzulako geure zoŕen ordaña. Emen kitutu biar ixan ba'geuntzuz geure gaiztakeri guztijen zoŕak ħnok itxaron legikean, Jauna,

(1) Dakuskezu=ikusi daikezu.

zeruetara juatea, ixanik ain jauskofa gure argaltasuna, ain andija gure gaiztakerija ta ain txiki ta epela, gauza onak egiteko daukagun gogua? Baña Zu, Jauna, osoro efukitsua ixan zayakuz eta gu geure zořetatik atera ta zerura eruateafen, artu zendun arte ta eruapen andija ta egin zendun garbitokija. Neure eskařona zuri erakusteko, opa dautzut gaur zeure nekauzte edo pasiñuan isuri zendun lenengo odola; Getsemani'ko baratzen, agoliñako estutasunen erdijan, odolezko ixerdiz luřa busti zendunian, isuri zendun odola. Neugandu ta neuretu gura neunkez, o Jesus maitea, orduan Zuk isuri zenduzan odol-tanta guztijak eta bakořa, eurak ixan dakidazan neure zerutař ogasuna ta eura-kaz ordaindu daiketuzdan nik, pekatari efukaři aonek, Zuri, neure Jaun ofi, dautzudan zoř andija. Baña niretzat lez ixan beite, Jauna, zure odola garbitokiko arima gaxoentzat be eta odolezko ixerdi lařitan zengozala zeure Bijotzak irunsi eban atsekabe mingotza gogoratu-ta, emon egijoezu aei arima efukařijai betiko bake ta atsedena.

Boskaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija da kristiñabok alkari zor dau- tsagun maitetasunaren biztugarija

I

Jesu-Kristo'k bariztau ta sendatu eban bere Aita zerukuak, lege zaŕean, gixonai ipiñi eutsen maitetasunezko agintzea. Kristiñabok alkaŕ maitatu bial dogu, ba, Jesu-Kristo'ren jaŕaitzaleak ixango ba-gara, Jaunak berak esan ebalako bere ikaslien ikuŕ edo ezaugaŕija ixango zala alkaŕganako maitetasuna. Jaunari itandu ba-dayogu nortzuk maitatu bial doguzan, erantzungo dausku geure geide edo lagun-uŕko guztijak maitatu bial doguzala. Au aonelan ixanik, maitatu bial doguz, ez bakaŕik luŕean bixi diran geure uŕkolagunak, baita bixitz aonetatik uŕten eta oraindik euren amaira, zeruko zori-jonera eldu barik, bidean geldituta dagozan geure geide ta anayak. Aonexek dira garbitokiko arima gaxuak.

Erijotzeagaz etzan uŕatu arima aekin lotzen ginduzan anaitasun-lokaŕija; etzan eten edo apuŕtu aekaz eta gugaz Jaungoikuaren sendi (famili) bakaŕa egiten eban maitetasunezko es-tuntza ta oropil sendua. Geure senide ta aizki-dien begijak saŕatu genduzanean; euren gor-

puai ilobira lagundu geuntsenean, ezkeuntsen agur-egin betirako, geruago arte baño. Ziñeste bakuak, ilten diranean, egiten dautse alkañi betiko agurra, eztabelako uste egundo geyago alkañi ikustea Ziñestedunak urengorañte bakañik agurñtzen dira, geure ziñesteak diñauskulako bixijak jañaitu biraño dogula ilen bidea, ta gure auretik juañ ziranak, beste bixitzan aurkituko doguzala. Bixijak eta ilak alkañi lagundu geinkiola, gorputz baten zatijak alkañi laguntzen dautsen lez, irakasten dausku geure ziñeskitz edo kreduak, agintzen dauskunean donien alkañtasuna (*santuen komuniñoa*) ziñestu daiñgula ¡Onetsija ixan bedi garbitokijatzaz daukagun ziñestea, beronek lotzen ditualako, itxaropen eta maitetasunezko lokañijakaz, bixitz aonetatik urñten ziranaen eta luñean bixi gariañoen bijotzak! Iñoñ baño maiteago ixaten doguz erijotzako orduan geure aizkidiak, iñoñ baño laztanago geure senideak, iñoñ baño kutunago geure gurasuak. Eurak eruaten dauskue geure maitetasuna ta geugaz gelditzen da euren. Geure ziñesteak emoten dautso maitetasun aoni bixija; bañiro alkañi ikusteko daukagun itxaropenak damotso (1) iraupena ta maitetasun zerañtañ aonen bidez, gelditzen dira bixijak eta ilak alkañekin lotuta: ilak eskatzen dautse Jauñari bixijentzat laguntasuna ta bixijak il zirañentzat, betiko atsedena. Auxa da kristiñaba-

(1) Damotso=emoten dautso.

ren bijotzari, berak maitatu dauzanen erijotzan, gelditzen yakon gozakai ta atsegiña, ziñeste-bakuak euki ezin daiken atsegin samuía ta itxaropen edeía,

II

¡Neure Jaun eta Jaungoiko zarean Jesus maitagañija! Garbitokiko arima gaxuak eta luíean bixi garean kristiñabak, ziñestearen bidez, alkañi emon geinkion maitetasunezko laztanak; dakañst neure burura, Judas zeure ikasle donge ta aizkide guzuñtijak, Getsemaniko baratzen, (1) azaletiko mosu bategaz zeure arerijoen eskuetan ipiñi zinduzanian, Zeuri Jaungoiko maitagañi aofí, emon eutzun laztan lotsagañija ¡Mingotza benetan ixango zan zure Bijotz samuñarentzat Judas gaiztoaren laztan guzuñezkua! A laztan lotsagañija añtu zendunean, zure Bijotz maitakoñak igaro eban neke ta naibage andijagañik, eta zeure ikasle lotsa galdukoaren arimea irabazteañen, berari agertu zeuntzan otzantasun eta maitetasun añigañijagañik, eskatzen dautzut, ene Jauna, egunerik egunera geyago estutu ta sendotu dagixuzala garbitokiko arima erukañijakin lotzen gaituen estuntza ta lokañijak; aek gure aldez eta guk euren aldez eskatu eta bata bestiari lagundu-ta, eurak eta gu eldu gaitezcan zeruetako laztan gozo ta betikora.

(1) Baratza=ortua.

Seigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija da gure bixitza epelarentzat
egunoroko uarpena: ⁽¹⁾

I

Garbitokijatzaz daukagun ziñestea guretzat guztiz osasungarí da; berak igitu ta bizkoftu gengikez, ba, geure egunoroko egikizunak, bial dan lez, egin eta zuzentzera, gure bixike-rea ixan dedin, gixonari bere argaltasunak la- ketuten dautsan bestian, ona, zuzena, eubagea ta jaungoikozkua. Eta egiz, garbitokijaren go- muteak dakaftsku egunoro geure gogora zein ziatz eta zoftza ixango dan geure Jaunari, egunen baten, emon bialko dautsagun kontua: garbitokijak darakusku guri txikijak begitan- duten yakuzan utsegiteak, eztirala, Jaunaren begijetan, guri iruditzen yakuzan bexen arin eta ezerezak; bestelan, eleukez, ba, ain gogof eta gaftatz zigoftau edo kastigauko Jaungoi- kuak.

Ebangelijuak diñauskunez, azkenengo zuri- koraño ordaindu bialko doguz geure zoftak, *do- nec reddas novissimum quadrantem*. Esakun aonek adierazten dausku ziatz eta zoftza ixan- go yakula Jauna, geure utsegiteak azteftu ta

(1) Uarpena = abertentzija.

euren epaya emongo dauskun egunean; ezertxu be aitzu barik, gure dongakeri ezkutuenak agertuko dirala Jaunaren begijetan eta orain bupera ta arduratsuak dirudijen arimak be, eurak uste ixan ezafen, zorðun aurkitu daitekez: la Jaunaren auran.

Edozein agintzaren biguntasun edo gogortasuna ezagutu geinke, agintza aori austen dabenentzat, daruan semai ta zigofari begiratuta. Eta aonelan, garbitokijan arima gaxuak igaroten dabezan nekeak gogoratu-ta, ezagutu daikegu epaikari zorotza ixango yakula Jaungoikua ta ziatza ixango dala Berak eskatuko dauskun geure utsegitien kontua. Argiro dakuzu, ba, kistiñaba, garbitokijaren gomuteak urgazi edo lagundu daikegula orain arte egin doguzan utsegite txikijak be gofotatzen eta, bafiro egin eztaiguzan, auferantzean arduratsuaguak ixaten.

II

Aitaren Jakiturija zarean Seme Jaungoikua! argitu egidazu, afen, neure adimen iluna, gero zeure auran ezautuko dodazan lez, gaurganik ikusi ta ezagutu daidazan, niri itsu aoni, sañitan txiki ta ezerezak begitandu ta iruditzen yatazan neure egunoroko utsegiteak; emon egidazu neure arimeari dagokiozan gauzetan, orain arte baño arduratsu ta begiratuagua ixateko bial dodan laguntasuna; zuragotu egidazuz arimako belafijak, argitu ta garbitu bere begijak, gofta-

sun barik entzun daikedazan, neure bijotz bañuan, zeure deyak eta ikusi, lauso barik, neure arimearen ofbanak.

Eskar au obeto loftu al ixateko, eskintzen dautzudaz gaur, Getsemani'ko baratzen txikot bategaz lotu zinduezanian; gerotxuago, Anas'en etxerantz ziñoyazala, bidian eta Anas'en etxian bertan, aek lotsa galdukuak Zuri, ene Jaun maite aori, egin entzuezan ixeka, iri ta bañiak eta zure Bijotz bigun eta samurak, gau aretan, igaro ta iruntzi ebazan atsekabe ta samintasun garatzat. ¿Zelan etzan, ene Jauna, gogortu Zu arpegijan jo zinduzan mofoi gaiztuaren besua? Baña ñagon ixilik, ero andi au! ñeu ixan naz neure Jaunari beste ainbeste egin dautsadana-ta! ¿Zenbat bidañ eztot iraindu, ba, neure Jaungoiko laztangaríja? ¿Zenbat bidañ eztot lotsatu neure Jesus'en arpegi eder eta garbija? ¿Zenbat bidañ eztot zauritu bere Bijotz bigun eta erukioña? Parkeske nagokixu, neure Jaun laztana: gomutau egixuz Anas'en etxean igaro zenduzan iri ta bañiak; gomutau egixu an bertan emon eutzuen betondokua, ta orduan erakutsi zendun arte ta eruapen andijagatik, azketsi edo parkatu egidazu neure pekatuen zoña ta garbitokiko arima gaxuai emon egijoezu betiko atsedena.

Zazpigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija da gure domutasun eta penitentzi txikararen ornigarija

I

Gure bixitzea garbi ta zuzena ixan bialfean, okef eta orbantsua ixaten dalako, alegiñik andijenak egin biar geunkez, damutasun eta penitentzijen bidez, geure okefak arteztu ta geure orbanak garbitzeko. Ezelan be ezin jadetsi geinke, ba, geure efu ta gaiztakerijen parkaziñoa, egin ezik eurai dagokien besteko penitentzija.

Baña gaur-egunian, Jaungoikuaren bildufean bixi dirala uste daben kristiñaben artian be, gixi dira euren gaiztakerijen neufiko penitentzija egiten dabenak. Ezpabe esan; ¿nor da gaur-egunean, antziñakuen antzeko laztasunak egiten dituana? ¿Zein da, antziñako gixaldi ziñeste bixidunetan lez, bere gorputzari nekaldi gogofak arazten dautsazana?

Gaur-eguneko kristiñabok, antziñakuak baño bupereaguak gara: edonoz eta edonun bilatzen dogu geure gorputzarentzat lasaitasun eta atsegiña. Barau bat-edo-beste egitea be, begitanduten yaku geure aragi bigun eta bupereak jasan edo igaro ezin daiken besteko laztasun eta gogorkerija dala. Au ta guzti be, Jaungoikuak ez-

tau erabijau ta aldatu bere legea; lenengo kristiñabak eukena, axe bera da guk daukaguna; antziña eukazanak eurak eta bañdiñak dira, gaur-egunean be, Jaunaren zuzentasunak daukazan eskubideak eta antziña bexen ziatz eskatuko dauskuz geure pekatuen zoñak. Utsegite ta dongakerijen parkaziñoa jadesteko, biar-biañezkua da bijotzeko garbai edo damua; baña damua ezta zindua, ustela baño, geure eruben neuriko penitentzija egitera igitu ta bizkortuten ezpa gaitu.

Jaungoiko erukitsuak, gure argaltasunari begiratuta, bigundu eban pizka bat bere zuzentasun zoñotza eta ipiñi euskun garbitokijan, geure penitentzi urijaren ornigarija, erijotz aurretik biar dogun beste egiten eztogunok, erijotz ostean, garbitokijan, ornidu daikegun emen bete ezkenduan neurija. Ixan bekigu, ba, garbitokija, orain arte penitentzi gitxi baño egin eztogulako, euki biar dogun atsekabearen pozkarija; baña ezelan be ezpegikegu ixan auferantzean be penitentzirik ez egiteko akiakulu edo atxakija. Orain edo gero egin biar ko dogun ezkeru, oba dogu orain egin penitentzi bigun eta labuñu, gero egin biar ixan eztaigun luze ta gañatza. Osterantzian, geure buruaren kalterako ixango litzakegu Jaunak geure onerako, geure argaltasuna urgazteko, (1) egin euskun eskañ edo mesede.

(1) Urgazteko = laguntzeko.

II

¡O neure Jaun eřukitsu ta samuřa! Zure are-rijo zitalak, zeure Aita zerukoaren ixena agotan ařtu ta, eskatu eutzuen Zeu nor ziřan iragaři zengioela eta Zuk, Jaun egiti aofek, zeure Jaungoikotasuna autořtu zendulako, aek dongeak erantzun eutzuen guzuřti ta birautija ziřala. Kaifas, epaikari azal-edeřak be, Jaungoikuaren Semea ziřala erantzun zeuntzarian, ařen (1) andija ta birau (2) gořija esan zendualata... bere sořekuak uřatu ebazan, zure egizko erantzupenak atsekabe ta min ixugařija emon ba'leutso lez... Nik, bařiz, neure eřuz, biař bada, neure Jaunaren ixen aguřgařija birauz ezaindu ta zikinduta ikusi ařen, eztot bape tamalik ařtzen; neuk, zorigeztoko aonek, eskar-txařik baltzenagaz, iraindu zaitudala jakin eta autořtu biař ixan ařen, eztot neure bijotza garbai ta damutasunez uřatzeko eta neure aragi dongea barauz nekaldu (3) ta ziořkadaz eziteko asmorik ařtzen...

Zuk, eřuge (4) ta garbitasun osua zarian Jaun aofek, erijotzea zoř zendula iřoen (5) zure are-rijuak, zeure Jaungoikotasuna autořtu zendulata beste barik; eta nik, pekatari zital bat ixa-

(1) Ařen = *maldezino*.

(2) Birau = *blasfemija*.

(3) Nekaldu = *mortifikau*.

(4) Eřuge = *eřu-bako*.

(5) Iřoen = *esaten eben*.

nik, eztot autořtu gurako eřudun nazala ta neure burua zigořagaz ezi bialř neunkela, gaiztakeri bařijak egiřazo eztaidazan, lengoez gařera?

Zeure eřukijaren eskař andija lez ařtu ta eruapenez igaro gure neunkez garbitokiko ořazeak, (1) Zuk Jaun eřukitsu aorek, bixitz aonetan neure zořen neuřija bete enebalako, agindu ko ba'zeunskit an, garbitokijan, igaro daidala neure gaiztokerijen nekea ta ořnidu, neure zořen neuřija. Bařa, Jauna, eřukitu zaiz, ařen, neke mingotzen erdijan dagozan arima eřukařijkaz eta zeure pasiřoko neke ta atsekabeak, batez be, Kaifas'en etxean egin eutzuezan irain ikarakořak eta igaro zenduzan lotsari astunak gogoratu-ta, bialdu egixu garbitokiko sutara zeure eřuki samuřaren iřontz osasungaři ta gozua, ixan dedin arima gaxuen poza ta euren betiko atsedena.

(1) Ořazea = tormentua.

Zortzigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija, bixitzan eta erijotzan, kristiñabaren pozgari ta atsegiña

I

Geure betiko zorijona loítuko dogun ala ez, ziuér ezin jakin daikegu eta gauza aonetzaz etoítten yakuzan ezbai (1) eta bildúfetan, osoro pozgafiya ixaten yaku garbitokijaren gomutea, berak leundu ta efeituten dauskulako, pizka bat, zerurako bidea. Arima guztiz garbijak baño zeruan saítzen eztiran ezkeru, gauza bildúrgafi ta ikarakoña ixango litxakegu geure orain arteko bixitza oíbanduari ta geure oraingo argaltasunari begiratzea, begijen aúfetik kendu ezkeru garbitokijagazko itxaropena. Eta egiz, garbitasun osua baño zeruan saítzen ezpa-da ¿nok itxaron daike zuzen eta artez zerura juango dala? Geure utsegite, eíu ta zoíak jagiko litzakez geure bijotzean, luíean muru ta mendijak jagiten diran lez eta begijetatik aldendu ta ostuko leuskigue itxaropenaren argi eder eta pozgafiya.

Osoro bildúrgafi ta ikarakoña ixango litxakegu betikotasunaren gomutea, gorputzetik guztiz garbi urteten diran arimak bakaírik, loítu ba'leikie zeruko zorijona, eta eíudun eta zoí-

Ezbai = dúdea.

duñ, erijotzako orduan, aufkitzen diran beste guztientzat, ezpa'lego betiko zoritxañaren itxaropena baño beste itxaropenik. Gauzak aonelan ba'lira, bixitza guztijan eukiko geunken ikarea, ezin geyaguan azi ta geituko litzakegu erijotzako ordu lañijan eta ezelan be ezingo geunke baretu ta baketu geure artegatasun, bilduñ eta ikarea.

Eta geugaz zer ixango dan ez jakiteak, saftuko leuskigun estutasun eta bilduña bexen andija, ixango litzake, geure senide edo aizkide maitagarñijen bat ilten yakunean, gure bijotzak eukiko leuken ikara ta lañitasuna. ¿Ze itxaropen euki geinke, ba, gure bijotzak maite dauzanen erijotzan, geure begijakaz ba-dakusku (1) Jaunak sañitan elexakuak artzeko epea emon añen, eztautsela geyenetan emoten euren eñu ta dongakerijen penitentzi oso ta betea egiteko, bialñ ixango leuken besteko epe ta luzapena? Gure bijotzak bere zatijak lez, maitatu ebazan senide ta aizkidien ilobi (2) añean, ezkenduke jakingo zer egin, ez noruntz zuzendu; sañatuta ikusiko geunke, ba, Jaunaren zuzentasunik bere eñukira duan bidea ta irudituko litzakegu alpeñ dala geure maitien aldez Jaunari eñegutzea.

Baña gure bijotzak ixango leuken artegatasun lañi au, asko baketu leike garbitokijatzaz daukagun ziñesteak; bera da, ba, gure etoñki-

(1) Ba-dakusku=ikusten ba-dogu.

(2) Ilobi = *sepultura*.

xun ilun eta baltzean, agertzen yakun itxaropen-ixaña; berak darakusku (1) gixonak erijotz-ostean be, itxaron daikela Jaunaren erukija; zof askogaz bixitz aonetatik urten afen be, ordaindu ta kitutu daikela bere gaiztakerijen zofa eta dongakeri andi ta astunaren orbanik beragaz eruan ezik, lenago edo geruago loftu daikela ta loftuko daula betiko zorijona: auxegatik da garbitokija geure ezbaijen iluntasunaren erdijan agertzen yakun argi edeña.

II

¡O neure Salbagile ta Jaun maitea! Pedro zeure ikasleak, Kaifas'en etxian, otsein edo neska-me baten bilduraen, iru bidañ ukatu zinduzanian, zure Bijotz samuñak aflu eban atsekabe andijagatik, eta Zeuk, maitetasun eta erukizko begirakune bat jaurti zeuntzanean, Pedro zure ikasle gaxuak egin ebazan negañ samin eta ugarijakatik; eskatzen dautzut kristiñau guztijoi ondo ezagutuazo daiguzula Zeuk, gure Jaun andi aofek, garbitokiko arimai dautsazuen eruki bigun eta maitetasun zintzoa.

Gutziz ederto erakutsi zeuntsen zeure maitetasun mugabakua, lufean bixi ziraneko euren argaltasunari begiratu-ta, garbitokijan emon zeutsenean epe ta luzapen barija, euren orbanak garbitu ta euren zofak osoro kitutu-ta, zeu-

(1) Darakusku=erakusten dausku.

re besarte gozuan jadetsi egikien maitetasunez-ko laztana ta zorijonez beteriko atsedena. Zeu geure Jaun ori, ain efukitsua ixan ezpa'ziñaku ¿zelan euki geinkean betiko zorijonaren itxaropena? ¡Onetsi ta goratu begije zeruko aingearuak zure efuki samur, gozo ta amaibakua! Neure erijotzaldijan, neure bixitzako efu ta utsegitearen gomuta bildurgarijak neure itxaropena kendu gurako daustanean, ez egidazu. afen, ukatu zeure efukijaren argi pozparija: sendotu egikedazu zeure ontasun neuribageatzaz daukadan itxaropena eta neure ardurarik-ezagatik, garbitokira juaten ba-da nire arima gaxua, albait lasteren emon egijozu, neuk orain an dagozan arima efukarijentzat eskatzen dautzudan betiko atsedeen eta zorijona.

Bederatzigaren egunerako irakurkixuna

Zelako neke ta oñaze ⁽¹⁾ mingotzak igaroten diran garbitokijan

I

Elexako guraso ta irakasleak, gauza aoneztaz diñauskuena da, garbitokijan igaroten diran atsekabe, oñaze ta neke-miñak, euren iraupenean ixan ezik, gañerako gañaztasun eta gogoñtasunean, geztotei edo inpernukoen antzekuak dirala. Bafendiko leza sakon eta bildur-gañijan dagozan zorigeztokuak lez, garbitokiko arima gaxuak be, atsekabe ta samintasun bi daukez: Jaungoikua ezin ikusi ixatea ta suaren gañak afazoten dautsen nekea.

Gorputzetik azkatu ta urten dan gogo edo arimeak, iñok esan eta uleñtu daiken baño geyago ta indarñtsuago maitatzen dau Jaungoikua; bixiro nai dau ikusi bere Jaun maitea, Jaunak bakañik ase ta bete daikelako arimearen egañija. Gure gogua, bixitz aonetan aragijagaz lotuta, aragi-bañuan sañtuta dagualako, ezin uleñtu ta ezagutu daikegu zein gañtsua dan aragitik azkaturiko arimeak, bera Jauna ikusteko daukan egañija; zein andi, bixi ta ase-eziña dan Jaunaren zorijonagaz zorijontsu ixateko daukan gurari ta gosea.

(1) Oñaze=tormentu.

Argiro dakus (1) Jaungoikua dala bere atsegin betea; Jaunagan bakañik aurfkitu daikela bere betiko atsedena; Jaungoikua ixango yakola bere zorijon osua, eta iñoz luñean ezagutu dan baño gose ta egafi andijaguaz, beragandu ta euki nai dau Jaungoikua. Baña Jaunak estalduten dautso bere arpegi edefa ta urinduten dau beragandik efu ta zorðun arima gaxua. Jaunaren maitetasunak biztuten dautso arima goxuari Jauna ikusteko daukan gurarija eta Jaunaren aldetik yatofkon luzapenak mingoztuten dautso bere egokera negařgafiya Auxe da Jaunak, bere arpegija esku batagaz ezkutauta beste barik, arima efukařijai, garbitokijan dagozan bitařtean, ukatzen dautsen atsegin eta zorijona.

Beste eskuagaz ixiotu ta biztuten dau Jaunak garbitokiko suba. Ondo ezařen, pizka bat ezagutu daikegu zein izugařija ixango dan ango su-gařak arimai afazoten dautsen neke ta oña-zea, gogoratzen ba-dogu zein andija dan Jaunak gaiztakerijari dautsan gořotua. ¿Zenbateraño ez eban zigořtau (2) ta nekaldu (3) bere Seme laz-tana, Jesukristo gure Jauna, pekatari gaizkiñen antzagaz agertu yakolako ta, bera efubagea ixan ařen, gure dongakerijak bere lepoan artu ebasalako? Elexako irakasleak diñauskue luñeko suba garbitokikuaren onduan, subaren

(1) Dakus = ikusten dau.

(2) Zigořtau = kastigau.

(3) Nekaldu = nekietan ipiñi edo saftu.

irudi ta antza baño eztala; ufea sutan garbitzen dan lez, garbitokiko suak arimak garbitzen dituala ta zoñ geyago ta andijaguak daukazana, txikiaguak daukazana baño luzaroago an egon biañko dala.

II

¡Neure Jaun eta Jesus ona! Gu pekatari eskañ-geztokuok asko maitatu ginduzulako, nekauzte gogoñ eta erijotz gañatza igaro zenduzan, gure betiko zorijona egiteko. Au aonelan ixanik, Zuk arima gaxuak ain gogoñto zigoñtau añen, ezelan be ezin esan geinke Zu, gure Jaun ori, zoñotz eta gogoñegija zayakuzala, geu pekatari itsuok, gaiztoegijak ixan gayatzuzala baño: aonelakorik gogoratu edo esatia, añen eta birau andija litzake, Zuk zeroñek, gure auñetik eta geure gaiztakerijen zoña ordaintzeko, ainbeste neke ta ain gogoñak igaro ta jasan (1) zenduzan ezkeru.

Zeure pasiñoan zuzentasun eta eñukija alkañtu zenduzan lez, garbitokijan be alkañtu dozuz eta zuzentasuna bexen argiro darakuskuzu (2) zeure eñuki ta maitetasuna. Eztozuz, ba, nekal-duten aek arima gaxuak goñoto dautsazuelako, maite-maite dozuzalako baño; eztozuz garbitokijan sartzen bestetarako, euren oñbanetiatik garbiñu ta gero, zeure zorijonera eruateañen baño.

(1) Jasan, *sufri*du.

(2) Darakuskuzu = erakusten dauskuzu.

Augatik mun-egin eta laztandu gura neunke, arima gaxuak zigořtzen dituan zure eskua, be-
ra dalako, bat-batera, gogoř eta samuřa, zuzen
eta eřukiořa. Bai-dakit ba, ene Jauna, zuk aek
arima eřukařijak ain gogořto zigořtau ta nekal-
du ařen, nik, eurakaz eřukitzen nazan pekatari
gaizto aonek bařo, askozaz geyago maitatzen
dozuzala: augatik natořkixu eurentzat eřuki-bi-
la. Eta zure Bijotz maitati, bigun eta samuřa
garbitokiko arima gaxuen aldez irabazteko,
gomutazoko dautzudaz, Kaifas'en etxeko gela
ilun baten sařatuta, zeure pasiřo-auřeko ga-
bean, eruapenik andijenagaz, igaro zenduzan
lotsari izugařijak: gau aretan zure Bijotzak
iruntzi ebazan atsekabe mingotzak gogoratu-ta,
eskiři ta emon egijoezu arima eřukařijai zeure
eřukijaren betetasuna, garbitokiko gau iluna
itxi-ta, ainbat lasteřen ikusi dayen euren zori-
jontasuneko egun argi ta edeřa.

Bigaren bederatziurena

Amargaren egunerako irakurkixuna.
Garbitokija ta gauza txikijetzazko ardura-
rikeza

I

Aufeko bederatzi egunetan ikusi dogu, ziñes-
teko argijagaz, zer dan garbitokija ta zein ne-
garrafiya dan bertan dagozan arima gaxoen
egokerea; orain beste bederatzi egunetan ikusi
daigun, zeintzuk diran garbitokira eruan gen-
gikiezan utsegiteak, ezaupide aonegaz zuzendu
daikeguzan geure bikitzako okeak.

Geure ziñeskintzako egija da, gaiztakerija
parkatu aŕen be, eztaula Jaunak beti parkatzen
pekatuen zoŕ guztija. Augatik, ziñetsi biaŕ do-
gu, bixitz aonetan osoro kiŕutu ezik Jaunak par-
katu dauskuzan pekatu erijozkin edo astunen
zoŕa, garbitokijan ziatz ordaindu ta osoro kiŕutu
biaŕko dogula. Baña, au ta guzti be, uste ixan
daikegu eŕu txiki ta utsegite ariñak daroyezala
garbitokira arimarik geyenak, safijago egiten
doguzalako ta euren parkaziñoa loŕtzeko, ardu-
ra gitxiago eukiŕen dogulako. Augatik esaten
eban gixon bijotz-bera ta maitati batek, eŕu ta
utsegite txikijak zirala, garbitokiko subaren
eŕegafiya. Azteŕtu ta banandu daiguzan, ba,

kristiñabok egunoro ta egunian saritan, bial ba-da, egiten doguzan utsegite ariñak.

Euren artian lenena ta kaltegarijena da, gauza txikijetzazko ardurarikeza. Eta benetan, eñu txikijai gitxi jaramoten dautsegulako, jausten gara euretan ain sañi; gauza on txikijakaz be ardurarik eukiten eztogulako, egiten doguz ain gauza on gitxi. Erubai, berez astunak eztiralata, jaramon gitxi egitea, lenengo begirakunean dirudian baño gauza kaltegarijagua ixaten da; etxamote aonek otzituden dau, ba, gure bijotza, indargetu ta makalduten dau gure gogua ta ipinten gaitu ari-labanaren gañean, pekatu astunetan jausteko arisku ta zoritxañean. Pekatu txikijak ezereztzat artzen ba-doguz, gerotxuago andijak be txikitizat eukiko doguz eta geuk uste dogun baño ariñago, aurkituko gara eñu ta of-ban andijetan begijetaraño sañtuta.

Bardin, Jaunak geure bijotz baruan egiten dauskuzan dei samuñai etxamotea; gauza txikijetan geure burua ukatu ta eziteko, nagi ta soñak ixatea; nekaldi txikarñak gorputzari arazoteko, (1) nagi-amañenak eukitea; zerua irabazteko yatoñkuzan aldi ta era onak alpeñik galtzea; aonein eta beste euroen antzeko gauza txikijen ardurarikeza, Jaunari eskarñtxañez erantzutea da; beraz, utsegite txikirik ez egiteko, orain arte baño bizkoñ eta arduratsuaguak ixaten ezpa-gara; egin doguzan eñu ariñen of-

(1) Añazo=artu-azo.

banetatik, garbai edo damuaren bidez, garbitzen ezpa-dogu orain geure gogua, zetan esan be ezta garbitokijan, neke ta oñazez (1) garbitu bialko dogula.

Ikasi daigun, ba, oraintxe, garbitokira ez jua-teko ta juaten ba-gara be, lasterátxe andik ur-ten al-ixateko, jakin eta egin bial doguna. Aonetarako euki daigun gauza txikijakaz, orain arte baño, ardura geyago.

Guk ezereztzat daukaguzan utsegite txikijen kontua, ixan daiteke Jaunaren aúfean, askok uste dogun baño ziatz eta luzeagua. Eztira ixango, ba, azala ta gañetxua bakafik ikusten daben gixonen begi lausuak, azkenengo egunean gure bijotzaren basteré eta sokonduak aztertu ta arakatuko dabezanak. ez; gure gogo ta bafena, azala bexen ondo dakusen 2) Jaunaren begi argijak, ixango dira gure bijotzaren sokondo ta biurfunerik ezkutuenak ziatz arakatu-ta, geure utsegite guztijak, batxu be itxi baga, geure begi ikaratuen aúfean ipiñiko dauskuezanak.

II

¡O neure Jesus laztana! Pilatos epaikari bilduráti ta ozkilaren aúfera eruan zinduezan Zu, efuge (3) ta zeru-luraren jaube zianan Jaun ori, zeure irakaspén eta egitaden kontua emon zen-

(1) Oñaze=tormentua.

(2) Dakusen=ikusten daben.

(3) efuge=efu-bako.

gijön berari. Ederto erantzun zendun Zuk, neure Jaun maitegaríja, aren agintari epelaren itaunetara; baña ¿zer erantzun al-ixango dautzut nik, zeure aufera deitu ta itandu daistazunean Zeuk emon daustazuzan eskañ ugaríjakaz zer egin dodan? Zer erantzun al-ixango ete dautzut, ene Jaun ona, neure gogamen, gurari, itz, begirakune ta egite okeñakaz egin dodan bixitzako eun loi ta ezañaren ari guztíjak eta bakotxa, zeure esku altsuagaz, azkatu ta banandu daixuzanean? ¡A ikuskixun bildurgaríja! Bai dakit, Jauna, eñu ta zoñ askogaz aurkituko nazala: augatik eskatzen dautzut orain, nigaz eñurik, emon daistazuzala zeure bixitza ta pasiñoko irabazkíjak, eurakaz ordaindu daitzudazan neure zoñ andíjak. Niri lez emon egíjoezuz garbitokiko arima gaxuai be, euren zoñen neuríja ornidu-ta, loñtu dagíjen betiko atsedena.

Amaikagaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta geure autuetan (1) dager- gun (2) arinkerija

I

Asko ixan aŕen garbitokira eruan gengikiezan eŕubak, deritxat geure miñagaz egiten doguzanak ixango dirala an ordaindu ta kitutu biarŕko doguzan eŕu ta utsegiterik ugarijenak, miña berez labana dalako ta izketan eŕez uts-egiten dogulako. Santiago apostoluak diñausku, ba, gixakume gitxik ezi daroyela euren miña ta izketan utsik-egiten eztauna, gixon zuzen eta ornidua dala.

Emen eztoguz aitatuko, zetan eztalako, nasai-keri, aŕnen eta birau zikiñak esanaz, askok egiten dabezan eŕu ta ogen (3) astunak; bakaŕik aitatuko doguz kristiñau ontzat dagozanak, miñagaz uts-egiteko daukezan aŕiskuak. Lenengo ta bein, miñagaz uts-egin daikegu biar eztiran gauzak esanaz. Au saŕitan jazoten da, egunoro darabilguzan geure autuetan; bai auŕekoen bixikerea geure autuen jakitzat aŕtu-ta, aginkada edo uxikadatxuak egiten dautsaguzanean;

(1) Autu=*konbersasiño*.

(2) Dagergun=*agertzen dogun*.

(3) Ogen=*pekatu*.

bai geuk ondo baño obeto egin doguzala uste dogun eginentxuak, geuk geronek, iñoren biarrik barik, astindu ta zabaldu, andietsi ta goral-duten doguzanean. Aonelan puztuten dogu sarritan geure arokerija, igari barik gure arokerija, bestien begijetan, arinkeri ta erokerija baño eztala.

Bigarren, uts-egiten dogu miñagaz, egoki ez-tanian eta biar eztan tokijan itz-egiaz. Au be sarritan jazo oi da, ixilik egotea zurtasuna danean be, ixilik egoten eztakigulako; gagozan tokijari ta auran daukaguzan lagunai zor dautsegun lotsa ta itzal onaren kaltez ixan azen be, ugartu eztakigun bildurez-edo, geure miña biar dan baño bizkoago erabilten dogulako.

Azkenez, uts-egiten dogu miñagaz, bariketa-zaleak ixanaz. Askok uste dabe, zegatik eta zetarako eztala ixan azen be, itz-egitea, berez. eztala gauza kaltegarria; baña bariketa asko darabiltzanak, uts asko egin daroyaz. Euzkel-dun-esakunea da: *bariketea ba'litz ardatza, etxe bete mataza*; baña bariketea, ardatza barik, aurrekuari ekitea dalako, bariketa-zaleak egiten ditu bere arimearen kaltez ixango diran mataza asko. Sari bariketan diarduanak, ekinen-ekinaz, biztuten dau bariketan jarduteko daukan gurari ta gosea; gose aonek eskatzen dautso jakija ta... zorijontsua ixango da bere min gaizto ta agin zofotzak ikutu barik gelditzen dan auzua.

Edonok dakus, (1) ba, garbitokiko subarentzat eřegarı asko batzau daikeguzala geure miņagaz. An geure buruak eře nai ezpa-doguz, auferantzean obeto neuftu białko doguz, dagiguzan (2) gauzak, daukaguzan autuak eta diņoguzan itzak; bestelan, bedarı igarıa sutan lez, eřeke diťu garbitobijan Jaungoikuak, bixitz aonetan, geure miņagaz, egiťen doguzan eřu ta utsak.

II

¡O Jesus, neure Irakasle andija! Pilatos, epaikari bilđurťijak, zure erijotzan zer-ikusirik ez eukiťearĕn, Herodes'gana bialdu zinduzanean; aonen eřege ařo-ta nasai aonen etxian, emon zeuskun ixiltasunezko ikasbide edeřa: Herodes'ek uste eban, ba, bere jakingurea ase ta beteko zeuntsala; baņa Zuk, ondo ezagutzen zendualako bere asmo okeřa, ezertxu be etzenduan erantzun bere itaunetara. Arek zorotzat ařtu zinduzan eta zorua lez soņeko zuriz jantzita, bialdu zinduzan bařiro Pilatos'enera. Herodes'en auřean, ezer erantzun бага, ixil-ixilik egon ziņalako, igaro biał ixan zendun lotsari andijagatik, eskatzen dautzut Zeuk, Aita-Jaungoikuaren jakiturija zarian aorek, emon daidazula, biał danean bakařik eta biał dan lez itz-egiteko ta osterantxean ixilik egoteko, biał-białezkua yatan

(1) Dakus = ikasten dau.

(2) Dagiguzan = egiťen doguzan

zuftasun eta jakituri zerutafa. Zuk, ezpanak zabaldu ta itz bat bakaafa esanagaz, itxi zengikezan lotsatuta zeure arerijuak; alan be, nik neure min zofoztz aonegaz egingo nebazan utsegiteak ordaintzeafen, mutik egin barik, egon zinan ixil-ixilik; zeure ixiltasun afigafi aonegatik, parkatu egidazuz, ba, neure autuetan, buru-arinkeriz, egin dodazan utsak eta neure geide edo urkolagunai ekaafi dautsedazan okeafak.

Azkenez, garbitokiko arima gaxuen aldez eta euren oñaze ta nekien gozagaafitzat, opaldu ta eskiñiten dautzudaz, Herodes'en etxetik Pilatos' enera, zorua lez, zuriz jantzita zinoyazala, Jeruzalen'go kalietan egin eutzuezan ifi ta bafiak eta igaro zenduzan lotsari andijak: eurakaz gogoraturik, parkatu egijoezuz, batez be, miñagaz egin ebezan efu ta utsegiteak eta eruan egixuz zerura, aingeru ta zorijontsuen autu ta izketa gozo-gozuak entzutera.

Amabigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta gauza onetarako nagikerija

I

Uts eta efu askoren sořkun eta itufija ixaten da gauza onetarako nagikerija. Nagijak asmo asko erabilten ditu, baña geyenak itxi daroyaz egintzeka, (1) bertanbera. Nagikerija da, nekatu barik egin ezin daitekezan gauzetarako gogorik-eza, arimearen epeltasun eta lozofua. Aonelako lozofuan daguan arimea, bere aufferapenerako ezertxu be egin ez ařen, artegatasun barik, baretasun (2) eta bake andijan aurkitzen da; deritxo, ba, Jaunaren legea gauza andi ta astunearn ausi ezik, beste gauza onik egin ez ařen, naiko egiten daula ta Jaunari eskařonez erantzuten dautsala. Arimearen ixakera ta egokera aoni epeltasuna deritxogu. Epeltasuna, ixenak berak diñon lez, berotasunaren kaltez-kua da, oztasuna be maitetasunaren arerijua dan lez. Arima askok euki daroyez epelaldi luzeak. Eztira ixaten guztiz otzak, eztabez egiten gaiztakeri andijak; baña bero ta gařtsuak ezti-ralako, iguin (3) emoten dautsela diñausku Jaungoikuak. Epelaldijak erijotzaraño irauten

(1) Egintzeka = egin barik.

(2) Baretasun = *trankilidadea*.

(3) Iguin = eřderaz *asco*.

ba-dautse, garbitokiko subaren gaŕetan berotu bialko dabe.

Jaungoikua zindoro maite daunak; bere legerko agintzarik lenena ausi baño beste enparau guztijak galdu nayago dituanak, ezin euki daitez aonelako epelaldidak. Epeltasun eta lozofuan dagon kristiñabak, guxufaz bai, baña egiz ezin esan daike Jaungoikua geyen, beste ezer baño geyago, maite daula; augatik epeltasunean bixi dan arimaren zigofa, gitxijenez be, ixango da, bere epeltasuna kenduko dautsan garbitokiko su-gafa.

Begiratu ta azteftu egizu ba, ene kristiñaba, epeltasunean saftuta ete-zagozan. Zeure Jaungoikuagazko bialkunak (1) erdiz-erdi baño egiten ezpa-dozuz; aften dozuzan asmo onak, zegatik eztala ta geyaoko haga, laga ta izten ba-dozuz; zeure otoi, eŕegu ta eskarijak egiten dozuzanean zure gogua, zeuk nai dozula, beste arazo batzuetan ba-yabiltzu; pekatu ariñari, betiko zoritxafaren eŕudun (2) egiten etzaitulako, jaramon gitxi egiten ba-dautsazu; ziñetsi daikizu epeltasuna zeure bijotzaren jabe egin yatzula ta Jaungoikuak iguin (3) eta gofoto dautsan lozofuan bixi zariala.

Jaungoikuari, agoz eta miñez, saftitan esan aŕen asko maite dogula; Beragazko egikixuntan eta Berak agindu ta eskatzen dauskuzan

(1) Bialkunak = obligaziñuak.

(2) Eŕu-dun = erdezaz culpable.

(3) Iguin = erderaz, asco.

gauzetan, nagi ta sof ibilten ba-gara, gure mai-tetasunik ezaren ikuñ edo ezaugafi ziuñ-ziuña ixango da.

Geure bixitza pizka bat azteñtu (1) ta arakatu ezkerokuan, guretzat tamalgafi (2) ixan añen be, autoñtu biañko dogu epelaldi luzeak euki doguzala, sañitan Jauna baño nagikerija maita-gafiago ixan yakula ta, gogo gitxigaz eta al-peñkeri askogaz geure gauza onak egin dogu-zalako, garbitokirako eñegañi askotxu batu do-gula.

II

¡O neure Jesus maite-maitea! Irain andija egin entzun Pilatos, agintari bilduñtijak Bañabas lapuñ dogeagaz bañdindu zinduzanean; au baño be irain eta iñi baltzagua egin eutzuen Jerusa-lendañak Bañabas, lapuñ, gaizkin eta erañlearen-tzat (3) azkatasuna ta Zuretzat, Jaun eñuge, zu-zen eta Ongiñe aofentzat kurutzeko erijotzea, diadañez, eskatu ebenian. ¡Tamal (4) eta atse-kabe samiña benetan zure Bijotz maitakoñaren-tzat, Bañabas Zu baña obetzat eta Zu bera baño gaizkiñagotzat zeunkiezala jakitea!

Aseñatuko nintzake aekaz gixon doñof, itsu ta gaiztuakaz; baña lotsa naz, ene Jauna, neuk ne-ronek egin dodalako Zugaz aek egin eben lako

-
- (1) Azteñtu = esamiñau.
(2) Tamalgafi = lastimagafi.
(3) Erañlea = iñor ilten dauna.
(4) Tamal = lastima.

dongakeri ixugaríja. ¿Ez al-dot, ba, neuk neure epeltasun luzean, baten baño geyagotan, Zu Jaun ori baño nagikeri-atsegiña maiteago ixan? ¿Ez al-naz neu Zugazko egikixunak, alpefkeri utsez, ganora barik egin dodazana? Zure aurrean nenguala jakin afen ¿ez al-da ibili sañitan nire gogo aldakoña batera ta bestera, lufeko gauzai eutselako Zuri baño zaletasun bixijagua?

Autoñtzen dautzut, ene Jauna, garbitokiko subaren efudun (1) sañitan egin nazala; baña efukitu zakidaz, ene Jauna, ta osatu egixu nire arima gaxua: emon egidazu, afen, Zeuganako maitetasun bero ta gañtsua, neure epeltasun kaltegañi au itxi-ta, gogo beroz eta bixiro bilatu dagidan neure betiko zorijona.

Eta bixitz labur aonetan zeure gose ta egañi gitxi euki ebelako ta euren egikixun onak, epeltasun eta nagikeriz, egin zituelako, orain garbitokijan, zeure gose ta egañijan, dagozan arima gaxuai, erakutsi egijoezu zeure arpegi edeña ta ase egixu euren egañija. Auxe da nik, bijotz-bijotzez, eskatzen dautzudan eskaña. Judatafak, Bañabas baño gaiztuago ziñala esanda, gañaxika zuretzat erijotzea eskatu ebenean, zure Bijotz maitatijari añazo (2) eutsen atseka-be ixugaríja gañik, itxaroten dot, ene Jauna, parkatuko dautsezula arima gaxuai euren zoña ta emon zeruetako zorijon atsegintsua.

(1) Efudun = kulpablea.

(2) Añazo = *artu azo*.

Amairugaren egunerako irakurkixuna

**Garbitokija ta gixozteak (1) gure kaltez
esan daikenaren bildur eta lotsorkerija (2)**

I

Lotsea gauza ona da, bide txarretik aldenduten ba-gaitu; baña donge ta gofotogañi da, gauza onak egitea galerezoten ba-dausku. Epeltasunak kristiñau asko darabiltz soñ eta mukeñ Jaungoikuagazko egikixunetan; baña epeltasuna bexen kaltegañi da arimearantzat gixaterijak esan leikenaren bildur eta lotsa dongea.

Estuntza gogoñak daruez esku-oñetan; gauza onetarako eskuak lotuten dautsezan estuntza gogoñak daruez gixaterijaren edeña euki nai dabena, bestien esakixun eta zeresanai lotsa ta bildur andija dautsenak. Jesu-Kristo'gañik, jakitun, zuzen eta ornidua ixan añen, zeresan andijak eukazan bere egunetako gixaterijak; gauza guztijak ondo egin añen, askok beragañik txarño esaten eben. Jesu-Kristok baño zori ohea ezin euki daike bere jañaitzaleak: augañik zorakeri andija dagi (3) gixaterijak esan leikenaren bildurañen, gauza onak egiteko lotsatzen dan kris-

(1) Gixoztea = gixataldea.

(2) Lotsofkeri = eñez lotsatzeko lera txarña.

(3) Dagi = egiten dau.

tiñabak. Baña erokeri andija ixan afen, kristiñau asko dagoz lotsa gaizto ta gofotogafi aonen otsein eta jopu (1) diranak; Jaungoikuari baño gixaterijaren esamesai bilduf geyago dau-tsenak.

Kristiñau asko ta askok ¿zegatik eztabez betetan Jaungoikuari batayuan egin eutsezan eskintzarijak? ¿zegatik dabilz beste asko efenka, euren eskintzak erdiz-erdi baño beteten eztabezala? Gixaterijaren esames, iri ta bañien bildufak daukaz, ugazabak bere jopua baño, gogoñago lotuta; augatik gaur eguneko kristiñau askok dauke ziñeste bakuen antza, lotsatzen diralako, gixaterijaren afean, agertzen euren ziñesmena.

Boferu ankefen (2) ezpata ta ayotzak baño kristiñau geyagori ukatu eragiten dautso *bere siñestea*, agoz ez afen, egitez beintzat, gixoztearen esakixun, destaña, iri ta bañien lotsa dongeak. Boferuak zauritu ta ilten ebezan gorputzak; baña ezin bezau (3) ta azpiratu ixaten ebezan Jaunaren maitetasunak berotzen ebazan goguak: gixaterijaren lotsa dongeak, bañiz, gorputzik zauritu ezafen, bijotzak eta goguaren almenak bezau, azpiratu ta lotzen ditu; augatik dira andijaguak, berak ziñesteari ta arima lotsofai dakaftsezan kalteak. Boferu ankefak, azken eta azken be, zerura bialtzen ebezan gor-

(1) Jopu=esklabu.

(2) Boferu ankef = *berdugu kruel*.

(3) Bezau = domau.

putzeko bixija kentzen eutsenaen arimak; gixaterijaren esames, destaña ta ifijen bildur eta lotseak, ostera, arima asko bialdu ditu geztotei edo inpernura eta geyago oraindik, garbitokiko sutara.

II

¡O neure Jesus maitea! Jopu doloí, txatxaí eta iguingaíjia lez, maruaga edo pilaí baten lotu zinduezan zu, nire Jaun ori, eta zenbatu ala zigofkada emonda, itxi zinduezan erukaíjien-erukaí. Pilatos bilduríjia, zure eruetasuna ezauturik, etzan lenenguan azaítu (1) erijotzako epaya zure kaltez emoten; baña bere aúrean gafaxika eguan gixaterijaren bilduréz eta bere edeíza ez galtzeaíren, agindu eban zuri, bildots eruge (2) aorí, zioíkadak emoteko, zeure gorputza zuzítu ta zauri goírdin bat egin aríteraño.

Aonenbestegaz etzan ase gixaterijaren amurua: baíro eskatu eban zuretzat erijotzea, ta orduan Pilatos lotsoí-lotsagaíztokuak, guztijen aúrean autoírtu eban erubagea ziñala; baña gixon dongien ixeka, ífi ta baíien bilduráíren, eskuak lenago garbítu-ta, emon eban gero zure kaltez erijotzako epaya ¡Gaíztakeri ixukoía, benetan, Pilatos bilduríjia, gixaterijaren edeíza ez galtzeaíren, Zugaz Jaun andi aorégaz, egin ebana! Ondo dakigu esamesaren bildurí eta lo-

(1) Azaítu = atrebidu.

(2) Eruge = eru bako.

tseá, zorakerija baño eztala. Naiz ondo naiz txarño esan gugatik gixozteak, ezkara ixango, garian baño obeak, ez txarñaguak. Bakotxa da Jaunaren begijetan dan beste eta mundutañen esames eta bañiak, ezin kendu leikioe gixonari atz-erdi be. Baña buru-erexiegijak ixaten garielako, ezek eztausku emoten aurrekuen esamesak baño bildur geyago. Batez be, Jaungoikuaren bildura galtzen dogunean, gixon txatxuen esames eta bañien bildur ixaten gara eta osterantzean egingo geunkezan gauza onak, baten baño sañijago izten doguz bertanbera. ¿Zegatik? Lotsañen, aurrekuak gure lepotik bañe egin eztayen. Beste batzuetan egiten doguz iñoz egin biar ezkeunkezan gauzak, gixonen edera eukiteañen.

¡O Jauna! zuk ondo dakixuz iri ta esamesen bilduragatik, egin barik itxi dodazan gauza onak, eta munduzalien ixeka ta bañiak ez entzuteañen, egin dodazan gaiztakerijak; parkatu egidazuz, ene Jauna, eta emon egidazu aurrerantzean gixaterijaren esakixunai etxamoteko ta Zeu baño beste Jaunik ez ezagutzeko biar dodan sendotasuna. Gomutau egixu, Pilatos'en aginduz, zigortaua ixan zñanean, isuri zendun odolezko ibaya, eta bixitz aonetan bestien esamesai jaramon geyegi egin eutselako, orain garbitokijan dagozan arima gaxuai, emon egijoezu, zeure zauri ta odolagaz irabazi zeuntsoen betiko bake ta atsedena.

Amalagaaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta eretxi onaren gurari erua

I

Esamesaen bildura ta eretxi onaren gurari lafegija, arimearen arerijuak dira, gauza onak eragotzi edo galerazo ta gauza txarak egiñazoten dautsezalako, Gixon gaiztoen esamesai bildur lafegi dautsegulako, sari-askotan emoten dautsegu aritik eta egiten dogu eurak nai dabena eta gure arimearentzat kaltegarri dana: buru-eretxijak eta arotxuak garialako, bilatzen dogu mundutaren gorapen eta luruna, aonetarako egin bira ixan arian Jaungoikuak nai eztauna eta geuk, Kristo'ren jarraitzaileak gareanekotz, egin bira ezkeunkena.

Esamesaen bildura ta oneretxijaren zaletasuna, bijak dira ebu ta utsegite askoren sorrun eta ituri loi ta ugarija. Aonetan egiten doguzan oker eta erokerijak, emen, garbai edo damutasunaren bidez. zuzenduten ezpa-doguz, garbitokiko subak ebe ta garbitu bira ko dauskuz.

¡Zenbat bira eztozu lotsatu ta zapaldu geure zintesta, aonelako uskerijakaz ase ta betetaren geure arokeritxua! ¡Zenbat bira eztozu bidezuzenetik urteiten gixaterijaren luruna irabaztearen!

Guztijok daruagu geure bijotzetan eretxi ona-

ren gurari ta egañija; baña batzuk osoro ito ez afen, ezi, bezau (1) ta makaldu egiten dabe, ta augatik, kalte gitxi egiten dautse; beste batzuk, ostera, oneretxi ta luñun bila beti dabilzelako, gurari okef eta donge au biztu. berotu ta indaifu egiten dabe ta agertzen dira sañitan oneretiaren zaletasunagaz eta euren buruai eurak damotsen (2) luñunagaz, erdi-mozkoñtuta. Emakumiak esaten da dirala buru eretxi ta uskeri-luñun zaliak; baña gixasemiak sañi-askotan dirudigu emakumak.

Mundutañen oneretxija irabazteañen, berez gauza neketsua ixan añen be, eñez eta pozez egiten dogu eurak eskatzen dauskuena. ¡Tamalgañi da Jaungoikuaren oneretxi ta maitetasuna irabazteko ain zoli ta bizkoñak ez ixatea! Geure buruen maitetasun itsua ta uskerijen zaletasun zorua ezi ta azpiraturik, Jaunaren oneretxija irabazteko egin biañ geunke al doguntxua; baña aonetan mukeñ eta atzerakoñak eta gixonen oneretxija bilatzeko zoli ta bizkoñak ixaten garialako, garbitokirako eñegañija batuko dogu ugari.

II

¡O Jesus, neure Jaun laztana! Zigoñkadaz zaurituta, eñukañijen eñukañi zengozala, igaro biañ ixan zendun egundo beste iñori egin etxakan

(1) Bezau = domau.

(2) Damotsen = emoten dautsen.

besteko lotsari astun eta mingotza. Gudarijak (1) ipiñi eutzuen buruan arantzazko burestun edo koroya; soñean, eñegien janzki gofi ta zafa; eskuan, kañabera bafu utza, eta zeure aufian belaunikoturik, ifiz esaten eutzuen: ¡aguf, geure eñegea! Aek gudari lotsabakuak etziran azpeñtu ta ase Zuri Jaun ofi ixeka, ifi ta irañak egiten, eta Zu, nire Beñerosle otzan ori, nire ari-miari zeuntsan maitetasunañen, etziñan ase aen ifi ta bañeak igaroten...

¡Jaunaren lotsari, ifi ta bañeak! soñtu egixue, añen, nire bijotzean alpaltasun eta otzantasunaren (2) gurarija ta osatu egixue nire añokeri erua! ¡O Jauna! Zure ikasle ta aizkide benetakua ba'nintz, gurako neunkez neuretzat zuk nigatik eta nire onerako añtu ta igaro zenduzan lotsarijak; baña egunoro gixonen edeña ta euren oneretxi ta luñuna bilatzen dodan ezkerro, nai-ta nai ez, autoñtu biañ dot zure ikasle ona enazala ta gitxijago, zure aizkidea. Aizkideak, ba, benetan aizkide ba-dira, nai ixaten dabe euki alkañen antza; batak egin bestiak dagiana (3) ta loñtu zori bañdiña; baña ¿nun daukat nik, Jesus otzana, nun zure antzik? zure antzekua ixateañen ¿noz maitatu ta bilatu dot lotsaririk? ¡lkasle txaña ta guzufeñzko aizkidea ixan nayatxu, neure Jaun laztana!

Zure oneretxija baño sañijagotan munduare-

(1) Gudari = soldadu.

(2) Otzana-mantsoa-otzantasun = mantsotasun.

(3) Dagiana = egiten dauena.

na bilatu daun nire arima gaxuari ta auxe be-
raugatik garbitokijan dagozan arima efukañi-
jai emon eiguzuz zeure pasiñoko irabazte andi-
jak eta parkatu eiguzuz geure utsegite guzti-
jen zoñak. ¡Jaunaren buruko arantza zoñotzak,
betondoko gogoña, txistu ta goño itxusi ta lo-
yak, soñeko zañ iñigañijak; ixan zaiteze, añen,
garbitokiko arimak daukezan zoñen ordain eta
kitugañija ta egixue aen arima efukañijen beti-
ko atsedena!

- - Amaboskaren egunerako irakurkixuna - -

Garbitokija ta gure eruapenik-eza

I

Kurutzean josita dakusku geure Jaungoiko maitagarria. Bere ikasle ta jarraitzaileak ixango ba-gara, kurutzea sofburuan dogula egin biaz dogu bixitz aonetako bidea, Jesus geure Irakasle jauna be, kurutzea bizkañean ebalatzen, igon zalako Golgota-mendi gañera. Jesu-Kristo da gure eredu (1) ta irakaslea; yatoñkuzan gexo, ezbiañ eta zoritxañak dira gure kurutzak. Kristiñau oso ta orniduak ixateko, euki biar dogu Jesu-Kristo geure Jaun eta Maixuaren antza; baña ezin euki daikegu gure Jaunaren antzik, ezbiañ eta zoritxañetan, epea, eruapen edo pazentzija arñtu ezik.

Aonelan eruapena biaz-biazekua dogu, kristiñau zindo ta orniduak ixango ba-gara; au ta guzti be, zoritxañik yatoñkunean, bertatik arñtegitu, urduritu ta aseñatzen gara ta galtzen dogu Jesu-Kristok irakatsi euskun otzantasun eta eruapena.

Gure arñtegitasun eta eruapenik-ezak iragarñten dau gure naimen edo borondateñ Jaunarenagaz batera eztabilala, guk sañitan eztogula egiten Jaungoikuak nai dauna: augatik eruapenik-eza-

(1) Eredu = modelua.

gaz egiten doguzan utsak, garbitokiko sutan eferko ditu Jaunak. Pizka bat arakatu ta aztertzen ba-dogu geure bijotza, utsegite askoren erudun aurkituko gara. Epe bakuak eta eruapen gitxiak ixaten gara, ba, geure lagunekin daukaguzan aritu-emonetan, geure zereginak txarto urteiten daukuenean, gexuak edo ezbiak ikutzen gaituenean, otzean eta beruan, geure bixibideak dakauskuzan nekietan, aurkuak gure kaltez zerbait diñoenean .. Ezbiarik txikienak beztunez beteten dauku bijotza, ipinten gaitu artega ta kentzen dauku bakea. Ezta beti Jaungoikua kurutzeak bialtzen daukuzana; baten baño geyagotan geuk bialtzen doguz, geure eruz, kurutze barijak eta beste askotan, geure eruapenik-ezagaz egiten doguz astunaguak, Jaungoikuak bialtzen daukuzanak.

Bigunago ta ariñaguak ixango litxakeguz kurutzak, artuko ba'genduz arte ta eruapen andijaguaz; baña geyenetan asarez artzen doguz eta aonelan Jaunak bialtzen daukuzan kurutzaren laztasunari, ezaften dautsagu geure eruapenik-ezaren astuntasuna.

II

Arantzazko burestuna (1) zeure buruan eta kañabera utsa zeure eskuan zenduala, erukañijen-erukañi ta guztijen irigañi, aterau zinduzan

(1) Burestuna = koroya.

Pilatos'ek gixoztearen (1) aufera, uste ixanik bijotzik gogofenak bigundu ta dongienak be erukituko zirala, Zu, Jaun ori, egokera negargarí aretan ikusita. ¡Jaun otzana! (2) zeure arpegi edeña odol eta txistuz ezainduta, aren eñi eskar-gaiztokuaren aufera agertu zinanean, zeure begirakune samur eta gozuaz, erakutsi zeuntsan zeure Bijotz maitatijaren otzantasuna eta zeure betiko eruapen jaungoikozkua.

Eta etzinan artegatu, etzenduan zeure otzantasun eta eruapena galdu, Pilatos'ek «Ecce homo» esan eta bertatik, eñi guztijak, diadañez, eskatu eutsanean erijotzako epaya zure kaltez emon egijala.

¡O Jaun eruapentsua! egixu nire bijotz aserekoñ au, zeurea lez, otzan eta apala edo umila, zeurea lez ixan dedin eruapentsua. Emon egidazu neure buruaren ezauera sakon eta osua, berau dalako apaltasunaren soñkuna eta apaltasuna, bijotzeko bake ta eruapenaren lagunik onena. Nai ta ez ixango da bestiakin eruapentsua, dakijana bestiak be saritan artu biar ixaten dabela beragaz eruapena; nai ta ez ixan biar otzan eta eruapentsua dazauana (3) Jaungoikuak saritan euki biar ixan daula beragaz, berak bestiakaz euki leiken baño arte ta erua-

(1) Gixozte = gixatalde andija.

(2) Oztzana = mantsua.

(3) Dazauana = ezautzen dauna.

pen askoraz andijagua. Emon egidazu aŕen, Jauna, otzan eta eruapentsua ixateko biaf dodan laguntasuna, aonelan zuzendu daikedazan, neure eruapenik-ezagaz, egin dodazan oker eta utsegiteak eta ordaindu garbitokiko arima efukaŕijen zoŕak.

Amaseigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta ildura edo laztasunen bildura

I

Eruapenik eza bexen zabal dabil kristiñaben aítian laztasunen bildura ta atsegiñen zaletasuna. Emen eztozuz aitatuko Jaungoikuak pekatu astunaren bian gebendu edo galerazo dauskuzan nasaikeri ta atsegin zantafak: aoneik barik be, gure aragi bupereak (1) bilatzen ditu beste atsegin asko, uraren bitzetan lez, neke gitxigaz eta aukera ta lasaitasun askogaz, bixi al ixateko. Ondoege esaten dautsagu geure aragi ustelkoñari, sañitan emoten dautsaguz aukera lañegi eta gero, gauza dongerik egiñazo eztaigun pizka bat ezi nai dogunean, abere ezi bakoen antzera, asten da, geure goguaren kaltez, ostikoka.

Ziñeste bakuak esan daroye luñean aurkitu biañ dala zerua eta geroko arimearen zorijonari jaramon baga, egin daroye alegin guztija emen loñtzeko aragijarentzat albait zorijonik andijena. Ziñestedunok be Jaunaren irakaskixunak baño eñezago ikasten doguz aonelakuak eta arimearen kalterako ixan añen be, bilatzen doguz geure gorputzarentzat aukerak eta atsegingañi yakoan gauzak.

(1) Buperea = bigunkeri-zalea.

Askok eztauke jan-edanean neufirik: osasunari begiratu bial yakola-ta, eleukie egingo ezegatik be baraurik. Alpef da eurai esatea baruak baño jan-edan lafegijak osasunari kalte geyago egiten dautsela. Euren jaungoikua urdala da ta arerijorik andijena, barua. Beste batzuk eztira-ixaten ain jatun eta saloberiak; baña soñekoetan dala, beste etxeko aukeretan dala, beti bilatzen dabe gorputzaren atsegin biguna.

Nekaldi ta laztasun egokijak sendotzen dabe gogua ta gorputza; bigunkeri ta atsegin lafegijak indargetu ta makaldu egiten dabe bata eta bestea. Bixitza atsegintsua daukenak, indar gitxi euki daroye, aregijaren girña ta lera dongeak eziteko; sendotasun gitxi, bide zuzenari jaraitzeko: augatik aldatz pizka bat aurkitu dayeneko, gogaitu ta azpeftuten dira ta jeuft-egiten dabe atzerantza.

Arima zuzen eta Jaungoiko-zalearen jakija il-dura ta laztasuna da; jaki aonegaz sendatzen da, edonoz eta edonun betetako zuzentasunak eskatzen dautsona; gauza erezetan bexen bizkoft egiteko gatxetan be Jaungoikuaren naya. Santuak ezeze, mundutafak anditzat daukezan gixonak be, ukatu bial ixan dautsez gorputzari atseginak eta aferazo nekaldi gogoftak; osterantzean, ezingo ebezan egin eurai ain entzute andija emon dautsen egite afigafijak. Eskaizan ixan, ba, ain atsegin-zaleak; eztaiguzan ainbesteraño goftotau, bixitza zuzena egiteko, ain asko ufgaztu edo lagundu daikeguen laztasun eta

nekaldidak; bestelan, geuk uste ezaren, iratzi ta ezariko dautsaguz geure arimeari, garbitokiko suak garbitu biariko dautsazan ofbanak.

II

¡O neure Jaun laztangaríja! Pilatos'ek zure kaltez erijotzako epaya emon ebanean, kurutze astuna ipiñi eutzuen boferuak zeure bizkar zaurituan. Kurutzea ikusi zenduneko, agur-gozua egin eta aizkiderik onena lez laztandu zenduan; nik, osterá, bildur-ikaraz begiratzen dautsat neure aurrean dakustan (1) baxotxean ¿Zetarako ixan daitekete kurutze ilari mun-emotea; neure bekoki ta bularean kurutzearen ikur edo ezaugaríja egitea, baldin gofotutzen ba-dot, ne kearen itxura ta irudipean, zuk bialtzen daustazun kurutza bixija? Niri epel aoni, kurutzeagazko maitetasuna irakasteko ¿zer gauza oberik egin zeinkean, zeuk nire aurretik, zeure bizkarrean eruan baño? Eta, au ta guzti be, soñtuten ezpada nire bijotzean kurutzeagazko maitetasuna ¿nundik eta zelan ixan naiteke ni zure ikaslea? Atsegiña ta bixitza bigun eta gozua baño besterik goguan eztaukana ¿ixan ete-daitekete kurutzean untzez josirikiko Jaunaren ikasle? Eta orain kurutzeari maitetasunik ezpa-dautsat ¿zelan ezautu nengikezu azkenengo egunean zeure ikasletzat?

¡O Jaun nekatua! ¡Ixan beite zure kurutzea

(1) Dakustan = ikusten dodan.

nire arimaren osasuna ta garbitokiko arima
efukaríjen atsegin eta poza! Zeure kurutzeari
emon zeuntzan laztan gozuagatik, azketsi edo
parkatu eiguzuz. Jauna, eurai ta niri, kurutzea
gandik iges ibili giñalako egin doguzan utsegi-
te ta zoñ andijak. Ixan bekit, Jauna, zure kuru-
tze maitegaríja neure bixitzako laguna, neure
erijotzako itxaropen eta gozotasuna ta erijotz
ostean, neure betiko zorijona. Jatzi beite garbi-
tokira zure kurutze donea, bere besoetatik igon
daitezan arima gaxuak, zeruko atsedean opa-
garíra.

Amazazpigaren egunerako irakurkixuna

Garkitokija ta geure geide (1) edo urkolagunagazko maitetasunik-eza

I

Kristiñau zindua ixatea maitetasunean bixitea da, maitetasunezkua dan ezkeru Jesu-Kristo gure Jaunak ipiñi euskun legea. Jaunaren legeko amañ aginduak, ondo begiratu ezkeru, bi baño eztira; eurretan agintzen yaku, ba, Jaungoikua geyen maitatu daigula ta geure burua lez, geure geide edo urkolaguna. Askok maitatzen dabe urkolaguna, euren gogokua dalako: beste askok beragandik zerbait itxaroten dabelako; beste batzuk, auferago artu dabezan mesedeakatik eskañ-ona erakusteko.

Maitetasun au ona da; baña ezta Jaungoikuak agintzen dauskuna, gure bijotzetan berez soñtuten dana baño. Aonelako maitetasunaz maitatzen dabe ziñesterik eztaukenak be; eztau bíañ, ba, gixonak ziñesterik, bere gogoko dan laguna edo berari mesedeak egin dautsazana, maitatu al-ixateko. Augatik esan euskun Jesu-Kristo gure Jaunak, geure aizkide, ongile ta gogoko yakuzanak baño maitatu ezik, eztogula egiten zingeak edo ziñestebakuak egiten eztaben gauzarik.

(1) Geide = projimua.

Maitatu bial dogu Jaungoikua, ontasun neuribagea ta amai barik maitagarija dalako; maitatu bial dogu urkolaguna, Jaunak aonantxe agintzen dauskulako ta gure geidea Jesu-Kristoren irudija dalako. Baña Jaunak agintzen dausku guztijak maitatu daiguzala, guztijak berak egin eta guztijetan bere antz eta irudija ipiñi ta ezañi ebalako: augatik, geure gogoko yakuzanak baño maitatu ezik, eztautsagu urkolagunari Jaunak agintzen dauskun lako maitetasunik.

Kristiñau zintzo ta bijotz andikuak maitatu bial dabe Jaungoikuaren antzera; baña Jaunak, bere aizkide ta arerijuai erakusten dautse bere maitetasuna; augatik guk be maitatu bial doguz gogoko yakuzanak eta etxakuzanak, aizkide ta etsayak, aonelantxe irakatsi ta agintzen dauskulako. Jaungoikuak.

Azteñtu daigun, ba, geure bijotza; begiratu daigun zek soñtu daun gure bijotzetan urkolagunagazko maitetasuna, eta ikusiko dogu, kristiñabak ixan añen, sañi askotan ziñestebakuen antzera maitatu dogula; aurkituko dogu geure urkolagunai zoñ dautsegun maitetasunean, uts asko egin doguzala. Eñez ezagutu daikegu geure geideai, Jaunak nai daun lako maitetasunik eztautsegula; eztogu, ba, eukiten guztijentzat neuri barñiña. Geure gogoko diranen egitadak, geyenian onak erizten yakuz eta gaiztakerijak ba-dira be, zuritu ta edeñtu egiten doguz; baña norbait begitan añtuta ba-daukagu ja! orduan

dagijan (1) guztija txarfo egiña iruditzen yaku ta iñoz baketan itxi barik, erea yatofkun bako-txean, beragatik dongaro esaten diardugu. Ezin ukatu geinke, ba, ufkolagunari zoř dautsagun maitetasunaren kaltez, uts askotxu egiten doguzala.

II

¡O neure Jesus maitakořa! Zugazko maitetasunak atarau eban etxetik zure Ama laztana; bultzau ta jauřti eban Jerusalengo kalietara, jakin ebanian euretatik ziñoyazala, kurutzea bizkařean zenduala: maitetasunak igitu ta bizkořtu eban, gixaterijaren erditik eta ezeren bildurik barik, juateko arin-aringa Zure bila; maitetasunak indařtu ta sendotu eban bere bijotza ta emon eutsan kemena (2), Zu ain itxura ta egokera negařgařijan ikusirik, ilunaldijaz jausi ez edin luřera.

¡O Ama-Semiaren Bijotz maitakořak, gure bijotzen eredu (3) ta irakasle ixateko, maitetasun garbizko su-gařetan berotuak! ¡Nok leukean zuenaren antzeko maitatasun zindo, garbi ta indařtsua, geure geide guztijai, aizkide ta arerijuai, on egiteko ta euren bijotzak irabazteko! ¡Orduan ezkeunke iñor be arerijo ixango, guztijak aizkide ta laztan baño!

¡O Jauna! Zuk aonelantxe maitatu ginduzun

(1) Dagijan = egiñen daun.

(2) Kemena = balorea.

(3) Eredü = modelo.

gu zure arerijo gintzanean. Zeuk zerofek esan zendun, maitearen alde bere bixija galtzen dau naren maitetasuna baño, maitetasun zindo ta andijagorik eztaguala, eta zeurea guri iragar teko, emon zendun gugatik eta gure alde, zeu re bixija ta aflu zendun erijotz garatza. Guri ez tauskuzu aonenbesterik eskatzen; baña agin tzen dauskuzu Zeuk ixan zeuskun maitetasu nañen, maitatu daigula geure urkolaguna, naiz dala aizkidea naiz arerijua. Auxe da, Jauna, zure agindua. Bete ta egiten ezpa-dot, zeure auñera deitu daistazunean, ¿ez ete-da auxe ixan go miñik geyen emongo daustana ta zuk gogof en sematu ta zigoñtauko dozuna? Aonelakorik gertau eztakidan, auñerantzean zeure agintzau albait ziatzen betetako asmo sendua afluñen dot. Eta aonelan, zuzendu nai neunkez nire orain aflu teko okeñak, osatu nire arima aonen gexuak eta ordaindu garbitokiko arima eñukañijen zoñak.

Amazortzigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta geure ogasunen erabilkuntza okera

I

Garbitokijan ordaindu bialko doguzan utsegite askoren sofkun eta sustraya da luferko ogasunaen erabilkuntza okera. Jaungoikuak emoten dauskuz ogasunak; baña ez buruak emoten dauskun lez, edozelan eta edozetara erabilteko, eurakaz geure ta bestien ona egiteko baño. Gitxi dira gauza aonetan bial dan beste ardura euki daroyenak; gitxi, euren buruai itanduten dautsenak ze gauza on egin daben Jaunak emon dautsezan ogasunakaz.

Geyenak esan daroye bakotxak beriagaz egin daikela nai dauna edo goguak emoten dautsana; baña au ezta osoro egija. Bakotxak beriagaz egin daike nai dauna. egin bial daunaren kaltez ezpa-da; baña egin bial dogunaren kaltez ixan ezkeru, Jaungoikuak eztausku emon eskubiderik, geure gauzakin geuk nai doguna egiteko.

Ogasunen jaube danak begiratu bial dau ze gauza on egin daiken bere ogasunakaz. Aoneri jaromon barik, zorakeri utsetan eralgi ta uxatu ba-dai bere ogasuna edo osagun-buruak urteoro

dakaritzan irabazgoya (1), utsegite askoren efudun (2) egingo da. Aberatsak ezpegi uste ixan, ba, bere afokerija erakusteko ta inori onurarik eztakaritsen zorakerijak egiteko, emon dautsazala Jaungoikuak bere ogasun ugarijak.

Auxe da ezelan be ixan ezin daiteken gauzea. Jaungoikuak gofoto dau afokerija ta Berak gofoto dautsan gauza baterako, ezin emon daike ogasuna Gixonaren gaiztakerijak itzuli ta okeitzen dau txarerantza, bere ta bestien onerako Jaungoikuak emon dautsan aberastasuna.

Jaunak berak egin ditu aberats eta txiro, landef edo pobriak; batzuei emon dautsez ugari bestiai emon eztautsezan ogasunak; baña au guztijau egin dau jakituri andijagaz. ¿Zetarako? Aberatsaren ugaritasunak lagundu ta sorosi (3) dagijan txiro edo landefaren ufitasuna; daukanak emon dagijon eztaukanari biar dauna; eztaukanak erakutsi dagijon emoten dautsanari bere eskar-ona eta guztijen bijotzetan bixi dedin alkariganako maitetasuna.

Dabit igarleak diñausku gure ogasun eta aberaskijak geitu ta ugaritzen ba-dira, eztaigula eurretan ipiñi geure bijotza, gixonaren bijotzak eztaulako ixan biar aberaskijen otsein eta jopu, (4) euren jaun eta jaube baño. Bestelan, urkolagunaren premiña ta estualdijetan be, sa-

(1) Irabazgoi = cfeitua.

(2) Efudun = culpable.

(3) Sorosi = sokofidu.

(4) Jopu = esklabu.

muftu ta efukitu białean, gogoftu ta tximuftu egingo da gure bijotza ta eztau sorosi gurako ańfekaren białixena. Auxe da zekenkeri edo zikozkerija deitzen dautsagun arimako gexua, garbitokijan ordaindu białko doguzan utsegite askoren sofkun eta itufija.

II

Irakufkixun aonek dakańst gogora, ¡O neure Jesus laztana! zuk zeure nekauzte edo pasińoan igaro zendun lotsari andi ta astun baten gomutea. Golgota-mendi gańera eldu zińaneko, aek bońeru anker (1) eta gaiztuak erantzi ta kendu eutzuezan zeure sońekuak, eta zeru-lurak edeńtasunez jantziten dozuzan Jaun ori, gelditu zińan gixoztearen (2) ańfean, bıloizik, guttijen ifigafı. Gero euren ańtian zotzak egin-da, zure sońekoetatik eruan eban bakotxak zozketan urten eutsona ta Zu gelditu zińan ezertxu baga.

¿Nor ezta lotsatuko ikusirik zure bıloiztasuna ta berak lufeko ogasunai dautsen maitetasun lańegija? ¿Nor ezta lotsatuko, gogoraturik, alde batetik, berak ogasunak batzeko egiten daun alegin geyegija; jagoteko darabilan ardura lańegija; galtzeko daukan bilduń-ikarea; eurai dautsen zaletasun itsua; eta beńteik, zeru-luraren jaubea, goiko txorijak eta lufeko lorak

(1) Anker = bijotz-gogof.

(2) Gixozte = gixatalde andija.

janzien dituan Jaun andija, biloizik, soñeko barik eta ezeren jaube eztala? ¡Au bai ikuskixun ariñagañija! Iñok emon biar ixan eutsan gauza guztijen jaube dan Jaunari, lenengo, zapi-zuri bat, bere garbitasuna estalduteko, gero, ixara bat, bere gorpua batzeko; iñok obi edo sepultura be, bererik ez-eukalako.

¡O Jauna! zuk zeure bixitzan irakatsi zendun luñeko ogasunen zaletasun lañegija, eragozpen andija zala, zeruko zorijona loñtu al-ixateko, eta itzez, (*berbaz*) irakatsi zenduna, egitez sendatzearen, erijotz aurfetik gelditu ziñan biloizik, ezer baga, geuk be biloiztu gengijen geure bijotza, kendurik berari luñeko gauzetara daukan jas okeñ eta zaletasun lañegija.

Azkatu eiguzu, ba, luñeko ogasunetatik geure gogua, eurai dautsegun maitetasun okeña itxi-ta, Zeugana zuzendu dañkegun geure bijotzetako maitetasun guztija, Zeu bakañik zarean ezkerro azken-barik maitagañija. Eta aonetan egindako utsakatik garbitokijan dagozan arima gaxuak, zeure biloiztasun aren, euren orban guztijetatik biloiztu egixuz, eta gure eskarijak entzunik, zeruetako atsedan betikora erua-kezuz.

Irugarren bederatziurera

Emeretzigarren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta Mesa santua

I

Auferagoko bederatzi egunetan ikusi dogu zeintzuk diran garbitokira arimarik geyen daruen efu ta utsegiteak. ikusi daigun orain zeintzuk diran, bixitz aonetan, geure gaiztakerijen zoñak kitutu edo ordaintzeko ta garbitokiko arimai lagundu ta euren nekiak arindu ta laburtu al-ixateko, geure aukeran eta esku-eskuan daukaguzan bitartekorik onenak eta indartsuenak. Bana-banan aitatu edo ixentauko doguz, garbitokiko arimaentzat osasungarijena ta eurai laguntzeko indartsuena danetik asi-ta, geure Ama Elexa doneari jaraitzen dautsagula.

Lenengua da Mesa santua. Trento'ko Batzarak irakatsi euskun, ba, ziñestedunok geure otoi, eskari ta egite onakaz, batez be Mesa santuagaz, lagundu ta sorosi daikeguzala garbitokiko arimak. Mesan daukaguz, ba, ogasun eta aberastasun ugarijak, eurakin ordaindu al-ixateko garbitokijan dagozan arima gaxuen zoñak. Gure betiko osasun eta zorijona egiteafen, Jesu-Kristo gure Jauna opaldu zan bein kuru-

tzearen besoetan; ordutik gero, egunoro ta egunean sañtan opaldu ta eskintzen da bañiro Mesa emolearen eskuetan, eta bere Aita zerukuari arimaentzat eskatzen dautso, kurutzean eskatu eutsan eruki ta parkaziñoa.

Abadea bakañik ba'litz au eskatzen dauna, elitzake ixango ain indañtsua bere eskarija; baña Jesu-Kristo da Mesa-emoleagaz batera, guretzat eruki, parkaziño ta betiko zorijona eskatzen dauna; augatik esan daikegu Jesu-Kristo'k Mesa guztijetan bariztetan daula, kurutzean, besuak zabalik, bere Aitari egin eutsan eskarija. Mesatan gomutau eta bañiztau egiten da Jaunaren pasiño ta erijotzea; eskintzen yako, ba, Aita Jaungoikuari bere Seme Jesu-Kristo, kurutzean il zanaren gorputza ta Jaunak bere nekauzte gañatzean isuri eban odola. Jesu Kristoren odolak itz-dagi (1) altaran zuzentasun eta erukija eskatzeko, Abelen odolak egiten eban baño askozaz obeto Zuzentasunez zoñ yako, ba, Jesu-Kristori, berak beñerosi (2) ebazan arimaen zorijona, auxe dalako bere atsekabe, neke ta erijotzearen ordain eta sarija; erukiz zoñ yake arimai betiko zorijona. Jaunak itxi ta emon euskuzalako bere pasiñoko irabazijak, eurakaz ordaindu gengikezan, geurez osoro kitutu ezin daikeguzan zoñak. Baña Jesu-Kristoren irabazijak, onuratsuak ixango ba-yakuz, geugandu

(1) Itz edo berba egiten dau.

(2) Beñerosi = eredimidu.

ta geuretu egin biar doguz, eta geugandu gein-
kez Mesa santuan, geure hijotzak daukazan
gerkun edo prestaeraen neufijan.

Mesearen arnari, alorta edo *frutua* irukotxa
da: lenengua, Mesea agindu edo eskintzen dau-
narena; bigafena, Mesa-emolcarena beria, ta
irugafena, biar diran gerkunakaz entzuten
daun kristiñabarena. Mesako irabazijak geure
tu daikeguz nai-ixan ezkeru, geure utsak bete
ta geure zoñak ordaintzeko; baña Jaunak gu-
gaz egin eban lez, geuk be arima gaxuakaz
efukija egin gura ixan ezkeru, eskiñi ta opaldu
geinkioz Jaunari, garbitokiko arimak dautse-
zan zoñen alderako. Egunoro bialdu daikegu,
ba, garbitokira Jesu-Kristoren odolaren iñontz
jaungoikozkua, eta aonelan itzali edo amatau
daikegu ango subaren gaña, garbitu arimaen
orbana ta jadetsi eurentzat zeruko atsedena.

II

Kalbarijo'ko mendi gañean opaldu ta eskiñi
zan lenengo Mesea: kurutzeta ixan zan bere le-
nengo altarea. Jesu-Kristo gure Jauna untze go-
goñakaz kurutzetan untzau edo josita egua-
nean, gure betiko osasun eta zorijonerako eski-
ñi ta opaldu zan. Jauna bera ixan zan opagaya
ta opalarija, bijak batera; eskeñi eutsan, ba,
Aita Jaungoikuari bere gorputza ta bere odola,
bere burua ta bere bixija, aonelan loñtu ta ja-
desteko arimaentzat betiko osasun eta zorijona.

Jesu-Kristok orduan, maitetasunaren bidez

eta inđarez, egin eban opakuntza neketsua, bařiztetan da orain altaretan eta azken-aldiraño egunoro bařiztauko da, altaratik jarijon eta isuri dedin, luřean bixi diran eta garbitokijan dagozan arimetara, Jesu-Kristo, Bildots orbanbaquaren odol edeř eta osasungarřija. Au aonelan ixanik řzer dala-ta ixaten gara kristiñabak ain itxijak, ain ardura bakuak, Jesu-Kristo'k Mesa santuan eskintzen dauskun bere odol edeřa garbitokiko arima eřukařijai bialtzeko? Bialdu geinkioe, ba, euren aldez Mesea entzun ezkeru, eurak daukezan zořen alderako Jesu-Kristo'ren odola Aita Jaungoikuari eskiñi ezkeru řZegatik ixaten gara, ba, ain nagijak Mesa entzutera etořteko? řZegatik ain atzerakoř eta otzak, geure Jaun maitakořak esku-zabalez opalduten dauskun bere odol edeř eta Jaungoikozkua, garbitokiko arima gaxuen aldez eskiñiteko?

Geure bixitzan bein bakařik baño Mesarik entzun ezin ba'geinke, ta aonetarako Jerusalem edo Eřoma'ra juan bialř ba'geunke jaorduan bai eukiko geunkela Mesa entzutera juateko gurari bixija! Eta zorijon andijau lořtu ezkeru, zetan esan be ezta, gogoz eta bijotzez entzungo geunkela, jakiñik eztogula bařiro eukiko zorijon bardiña.

Baña Jesu-Kristo ain maitati ta eřukitsua ixan yakulako, ain eraz Mesea ipiñi dauskulako; eskař obeagaz erantzun beařean, eztogu aintzat ařtzen bere mesedia ta sařitan gogo gixigaz eta ganora barik entzuten dogu Mesea.

¡O Jauna! emoidazu zeure jafaitzalerik zintzoe-
nak Mesa santuari ixan dautsen itzal eta lotsa
andija; ekazu, afen, gogoz eta bijotzez entzute-
ko bial dodan laguntasuna, osasungafi ixan dai-
tezan niretzat eta garbitokiko arimentzat, Me-
san opaldu ta eskintzen doguzan zeure gorputz
eta odol jaungoikozkua.

Ogeigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta saritan Jauna artzea

I

Mesatara eldu ta gogoz entzuten daunak, beragandu daroyaz Mesa santuaren arnari edo frutuak: baña askozaz obeto ta ugarijago geuretuten doguz Jesu-Kristo'ren eskañ eta irabazijak, gogo garbi ta maitetasun beruagaz gure Jauna artzen dogunean. Altarako sakramentuan, ogi ta ardao irudipean daguan Jaunari gurmena ta gorapena itzal andiz emotea, gauza zuzena berez eta guretzat onuragañi da; baña askozaz osasungañijago ixango yaku, aonezaz gañera, Jesu-Kristo'ren gorputz eta odola geure bulañetan artu, bere eskañ ugarijak geugandu ta geuretu, eta bere irabazijakaz geure arimea aberastuten ba dogu.

Jaunak esan eban bere gorputza gure gogua-
ren janari ta bere odola edari ixango zala, ta agindu euzkun bere gorputz eta odolagaz alikatu (1) ta indartu daigula geure gogua, osterantzeko jaki-edarijakaz alikatu eta sendotzen dogun lez geure gorputza. Jesu-Kristo'ren gorputz eta odola, bialñ diran gerkunakaz, jan eta edaten dituan arimea, jaki ta edaki jaungoikoz-

(1) Alikatu = alimentau.

kua ařtu ta beretu daulako, zelanbait jaungoikotu egiten da.

Baña, aonezaz gañera, gure Jauna, biał diran gerkunakaz, sařitan ařtzea da, geure arimaren gexuak osatu, garbitokiko arimai lagundu, ta euren zořak ordaintzeko egin daikeguzan gauzarik onenetakua: augatik, arima gaxuak maite dituanak eta eurai lagundu gura dautsenak, euki biał dau saři ta albait ondoen gure Jauna ařtzeko gurari ta zaletasun andija. Beste ezelan baño obeto batzandu daiteke kristiñaba, bere auřetik juan ziran eta garbitokijan dagozan senide ta aizkideakaz, Jesus sakramentuari bere bijotzean laztan gozo bat emonaz eta Jesu-Kristo'ri, berak be arima gaxuak laztandu dagixala, eskatuaz.

Mundutařak ilobijetan ipinten dabezan lorak tximuřtu ta igařtu egiten dira; eurak isuriten dabezan negařak arin agořtu ta lasteř liorřtu, arima gaxuai onik egin baga; baña Jesu-Kristok sakramentu gurğaři (1) aonen bidez, emoten dauskun laztana, onuragaři da guretzat, eta guk berari emoten dautsaguna, osasungari da garbitokiko arima gaxuentzat. Ziñesmen bixiz eta maitetasun beroz gure Jaunari emoten dautsagun laztana, Jaunak berak eruango dau garbitokiko arimakana: augatik ziñetsi daikegu garbitokiko arima gaxuen alde z gure Jauna ařtzen dogunean, Jauna bera ta arima eřukařijak laz-

(1) Gurgari = adoragari.

tan bategaz laztanduten doguzala; Jaunak emongo dautse, ba, arima gaxuai gure ixenean, geuk Berari emon dautsagun laztana.

II

Irakaspen edefak emon zeuskuzan, geure Jesus laztana, kurutzean eskegita zengozala, esan zenduzan zazpi itzetan. Maitetasun utsa zarialako, inori gorotorik ixaten eztakixun Jaun ofek, lenengo zeure boferuen aldez eskatu zenduan; gero, zeure eskomaldeko lapuñari azketsi edo parkatu zeuntsan; eta guztijoi iragañteko lapuñ damutuagaz egin zenduna, beste edozein pekatarigaz egiteko gertu zengozala, emon zeuskun geure Amatzat kurutzearen oñean eguan zeure Ama maitagañija. Aonen ondoren, erakutsi zendun zeure egañija, arimak zeuganduteko zeunkan egañi andija; gero eskatu zeuntsan zeure Aitari estutasun lañi aretan etzengixala bakañik itxi, ta zeure egikixuna osoro amaitu zanean, zeure gogua (1) ipiñi zendun zeure Aita Goikuaren eskuetan. Auxe ixan zan Jesu-Kristoren ilburukua: aonelantxe agertu eban bere azkenengo naya. Bere erijotzaldijan osoro itzuli edo iruli eban bere Bijotza, maitetasunari eragin eutsan gañezka eta Jesusen Bijotzetik jarijon eta isuri zan gixaseme guztijetara maitetasun eta efukija. ¡Nor legokean kurutzearen onduan, Jesu-Kristoren agotik uf-

(1) Gogua = arimea.

ten ziran azkeno itzak entzun, goguan aitu, bijotzean gorde ta gero sañitan gomutara ekañi al-ixateko! Baña, ondo begiratu ezkeroko da kurutzearen oñean egon gura ixatea, orduan itz-egiten eban Jauna bera, etoñten ba-ya-ku orain geure bulañera?

Biañ diran gerkunakaz gure Jauna aitzen doguncan; Jesu-Kristok gure gogua bero-bero aũkitzen dauenean, iruliten dau bere Bijotza ta Bijotzeko maitetasuna gure bulañ bañura; eta gure goguak bere belañiak zur ba-daukaz, ixiltasunean entzun daikekez Jesusen Bijotza-
ren taupadak eta berak diñotsazan itz gozuak; betiko bixi ta zorijona eskintzen dautsen itz leun, bigun eta entzungañiak. Eztaigun alpeñik galdu Jaunak emoten daskun era ona. Aitu daigun sañitan, apaltasun (1) andijaz eta maitetasun andijaguaz, geure Jauna, Bera ixan daiten gure arimaen eta garbitokiko arima gaxuen betiko zorijona.

(1) Apaltasun = umildade.

Ogetabakaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta parkamenak

I

Arima gaxuai laguntzeko, beste ogasuntegi bat be bai-dauko Elexeak: ogasuntegi aonetako aberaskijak dira azkespen edo parkamenak.

Ogen edo pekatuak, eñu diranekotz, parkatzen dira damutasunagaz eta autořkintza edo konpenziñoko sakramentuagaz; baña gaiztake-rija parkatuta gero be, geure ziñesteak diñauskunez, sañitan gelditzen da, parkatu baga, gaiztakerijaren zoña. Pekatu erijozkin edo astunak betiko zoritxañaren eñudun egiñen gaitu. Jaungoikuak geure pekatu astunak parkatzen daukuzanean, azkatuten dau betiko zoritxañetik gure arimea; baña geyenetan eztautso parkatzen bere zoñ guztija, arimeak berak be eztaulako eukiñen, aonetarako biañ litzateken beste-ko damutasun sakon eta indañtsua: augatik Jaungoikuak, parkatu dautsan betiko zoñaren ordeñ ixentetan dautso, zoñ aldikaña (betikua eztana), bixitz aonetan edo bestian, garbitokijan, ordaindu edo kiñutu biañko daun zoña. Zoñ aonexen ordain edo kiñugañijak dira parkamenak.

Zoñak ordaintzeko, ogasunak (1) biañ dira:

(1) Ogasuna = ondasuna.

norbere edo inoren ogasun barik, inok be ezin kitutu daike bere zofa. Arimaren zofak ordaintzeko be, arimako ogasunak biala dira ¿Nun aufkitu ete-daikeguz, ba? Jesu-Kristo gure Jaunaren irabazijak amaibakuak dira; Andra Mari-jarenak, ugari-ugarijak; beste santu asko ta askorenak be, euren zofak ordaintzeko biala ebezan baño irabazi andijaguak. Jesu-Kristo ta bere Ama laztanaren irabazijak eta beste santu askok euren zofak ordaintzeko biala ezebezanak, egin eta osorotuten dabe Elexearen ogasuntegija, eta ogasuntegi aonetatik emoten dausku guri Elexeak, geure zofak kitu izteko biala doguna.

Senitasunezko odolak batzen dituan lez sendi edo *famili* bateko umiak, gu kristiñabok be batzen gaitu geure ziñeste bardiñak eta guztijok alkañegaz batuta, egiten dogu Elexea deritxogun kristiñau-batza. Elexearen buru ta kristiñaben Aita da Jesu-Kristo gure Jauna; Andra Marija, geure Ama, ta santu edo doniak, geure anayak. Seme bat-zein-batek biala eztauzan ogasunak, emon leyoiz gurasuak, euren premiñea daukan beste seme bati. Aonelantxe egiten dau Jesu-Kristo gure Jaunak; bere irabazijak, bere Ama kutunarenak eta santuak eurentzat biala ez-ebezan ogasun eta irabazijak, emoten dauskuz guri, euren biala gagozan bere semeoi. Luñean, Jesu-Kristo'ren ordekoa da Eñomako Aita Santua; Jesu-Kristo'k emon eutzan almen edo eskubideagaz, idegiten dau aonek

Ellexêaren ogasuntegija, ta eskiñiten dausku, parkamenen bidez, geure zoñak ordaintzeko bial doguna.

Parkamena biñarikua ixan daiteke; osua ta zatikiña (1). Osua ixaten da, geure zoñ guztija kitu izteko beste ogasun emoten yakunean; zatikiña, geure zoñaren alde bat ordaintzeko lain baño eskintzen etxakunean. Parkamenak irabazteko, zintzoro egin bial da Ellexeak aofetarako agintzen dauna, ezertxu be itxi baga.

Ama bere umetxuakin ixaten dan bexen samuñ, efukioñ eta bijotz-zabala, ixan yaku geure Ama Ellexea: egunoro emoten dausku, ba, parkamenak irabazteko erea; baña guk sañi-askotan eztoгу eukiten parkamen aofeik irabazteko, Ellexeak bere aberaskijak (2) guri eskintzeko euki daroyan ardurea ta, jaramonik egin baga, igesten yaku garbitokiko arimai laguntzeko daukagun eféztasun eta ereti (3) ona.

II

¡O Jesus, geure Jaun maitea! Zeure erijotzeagaz irabazi zeuskun geure gaiztakerijen parkaziña ta geure zoñ guztijen parkamen osua. Guri itxi zeuskun egiñen bakaña da, zeure irabazijak geugandutea; geugandu ta gero, geuretu daikeguz geure arimearen osasunerako; baña geuk nai ixan ezkeru, opaldu ta ezkiñi dai-

(1) Zatikiña=osuaren zatija; erdikiña, osuaren erdija lez.

(2) Aberaski = aberastasun.

(3) Ereti = okasiño.

ketzuguz garbitokiko arimak zeuri dautzuezan zofen alderako. Kurutzera eskua luzatu ta Jaunaren aurrean geure bijotza zabaldu ezkerro, geure zof guztijak ordaintzeko bial dogun beste aberaski ta zerutaf ogasun geugandu daikeguz. ¡O Jauna! Geure maitetasunafen, kurutzean jositá zakusguzan bakotxean, alaitu ta poztu daiteke gure bijotza: Zeu, kurutzean untzauta il zifnan Jaun ori, zara, ba, zerutaf ogasunak oparo darijozan eta ifnoz agoftzen eztan itufija.

Tamalgafi da benetan, neure Jaun maitea, zuk opa ta eskintzen daustazuzan ogasunak neuganduteko, nik daukadan nagikeri ta ardurarik eza. Neure Ama Elexeak idegifen daustaz zuk itxi zeuntzan ogasuntegiko ateak; ugari ta oparo eskintzen daustaz parkamenak

Bial dodaz neuk, bial dabez garbitokiko arimak, eta auta guzti be, nagikeriz galtzen dodaz Elexeak neure eskueran ipinten daustazan ogasun zerutafak. Auxe neure nagikeri au ixan daiteke, Zuk, zeure auffera deitu daistazunean, arpegira botako daustazun efu lotsagafija.

Neureak eta arima gaxuen zofak ordaindu ta kitu izteko, ain efertasun andija emoten yatan ezkerro, aufferantzean ardura geyago euki nai neunke, neuretzat eta arima gaxuentzat parkamenak irabazteko. Auxe da, Jauna, nik orain artzen dodan asmua; Zuk emoikedazu, asmo aonetan irauteko, bial dodan sendotasun eta indafa.

Ogetabigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta eskesari edo limosnea

I

Itz gitxitan ezin adierazo leike, arimak euren ofbanetatik garbitzeko, eskesari edo limosneak daukan indaia. Limosnan daukagu, geure ta garbitokiko arimen zofak ordaintzeko laguntzia ziuia ta kitugafi ona. Liburu santuetan ugari ta oparo aurkitu daikeguz limosnearen indaia argiro darakuskuen (1) esakunak. Orain bakaik aitatuko dogu Daniel igarleak Nabukodonosor eregeari esan eutsona: Asefatu dago zugaz Jaungoikua eta bialduko dautzu zigof gogofa; baia, alan be, artu egixu neure itun onu, edo *konsejua*. «Zuzendu egixuz limosnakaz zeure okeak eta garbitu egixuz efukizko-egiteakaz zeure gaiztakeriak; oraindik, bial bada, Jaungoikua efukituko yatzu-ta».

Euzkeldun zaen esakunea da: *Aberatsak jaya dauke, txiro gaxua beti neke: auzuak be iguin (2) daude, beti dabilena eske*. Augatik, esakun aonen auez-aur, iguina kendu ta bijotzak efukirantz iruli ta bultzateko, gure guraso zaak, kristiñau onak ziran gure asabak, softu

(1) Darakuskuen = erakusten daukuen.

(2) Iguin, erderaz asco.

eben beste esakun auxe: *Tamal* (2) *eukok txi-roari ta sorosi aren opariñari*. Esan nai dau: Eñuki eukijok eskekuari ta lagundu egijok aren premiñeari; biañixenean daguanari eñuki ixa-tea, biderik onena dalako, Jaungoikuaren eñukija geuganduteko.

Epaikari edo Jueza, norbere aldez epaya emon dagijan, diruagaz edo eskupekuakaz erostea, luñean okeñkeri andija ixaten da; baña okeñkeririk egin barik, irabazi daikegu, limosnakaz, Jesu-Kristo'ren-Bijotza, geure aldez emon daigun azken-epaya. Jaunak berak esan euskun, ba, geure ogasunak txiro edo eskekuai emon-da, irabazi geinkezala betiko zorijonera eruango gaituezan aizkideak.

Luñeko epaikarijak norbere aldez eta iñoren kaltez erostea, gaiztakeri andija ba-da be, Jesu-Kristo'ren Bijotza, bere ixenean txiruai lagunduta, geure aldez irabaztea, Jaunaren begijetan eñukizko egipena da. Jaunak berak irakatsi euskun, ba, eñuki-biaña daukenai eñukija egiten dautsenakin, bera be eñukioñ eta eñukitsua ixango dala, ta geuk bestiak neuñtuten doguzan neuñijagaz, berak be neuñtuko gaituala. Argiro agiri da, ba, premiñan dagozanai eske-sarija emonaz edo limosna egiñaz, irabazi daikegula geuri betiko epaya emongo dauskun Jauna.

Jesu-Kristo'ren ixenean eta bere maitetasu-

(2) Tamal, lastima, compaziño.

nañen, egiten dan limosneak, arinduten dau arima gaxuen nekea eta laburtu eurentzat garbitokiko epea; (1) baten baño safijago idegiten dautse atea ta emoten dautse azkatasuna, igon dagikien zeruko zorionera.

Limosnatik albait onurarik (2) geyen aterateko, ondo ixaten da, nori ta zelan egiten yakan begiratzea. Batek baño geyagok esan daroye antziñako esakun zañak diñona: *Doguna jan eta txiro ixan*. Augatik, bere gurez txiro, lander edo pobre danari baño lenago egin biar yako limosna, alegin egin añen, estualditik urten ezin danari; al ba-da, biar edo premiñarik geyen daukanari ta Jaunaren ixenean beti. Jaunak esan dausku, ba, bere ixenean egiten dogun erukizko egitadea, Berari egiñekotzat artzen daula; onilkada-ura egañi danari emonaz, artuendun (3) gelditzen gayakozala ta txiruak emon ezin daikeguen ordaña, (4) Berak emongo dauskula. Itxaropen andija, benetan, euki daike azkenengo egunean, orain limosnearen bidez Jaunaren Bijotza irabazten daunak. Egin daiguzan, ba, Jaunaren auñerako aizkide ta bitartekuak, Jaunak berak emon dauskuzan eta sañitan gaiztakerirako bidea baño ixaten etxakuzan ogasunakaz.

(1) Epea = plazua.

(2) Onura = probetxu.

(3) Artuendun = akreedore.

(4) Ordaña = pagua.

II

¡O neure Jesus erukioña! Kurutzean eskegita zengozala, aztamakilearen burdin zofotzak zulatatu ta idegi eutzun zeure bulafa. Zure Bijotz maitakoñak, bulafeko zauri-zulotik, emon gura ixan euskun bere maitetasun gorijaren azkenengo ezaugarrija ta bere eruki samufaren azkenengo eskañ eta limosnea. Ainbeste odol isuri-ta gero be, odol eta ur tanta batzuk gelditzen yatzuzan zeure Bijotzean; aek be, zeuretzat gorde barik, geuri emon gura zeuskuzan eta geure onerako zeure bulafeko zauritik isuri zenduzan. Zeu ain bijotz-zabal eta erukitsua zayakula ikusi ta gero ¿bijotz-tximurak eta zikotzak ixango ete-gara gu, premiñea dauken txiro ta eskekuakaz? ¡Lotsatu bei gure zekenkeri-ja zure erukitasun andijak! Aonetan be, beste enparauetan lez, zeure ikasle zintzua ixan nai neunke.

Zuk, Jaun orék, egin zendun nigaz erukija eta agindu zeustan neu be, ordez, bestiakin erukioña ixan nendila. Sendatu egixu ba, Jauna, nire gogo gaxua, zabaldu eikedazu ;neure bijotza, igitu (1) ta bultzau nagixu erukizko egipenetara, aonein bitartez kitutu daiketzudan neure gaiztakeri andijen zoña.

Limosna egiten dodanean, uste ixango dot Zuk, Jaun orék, zeuretzat artzen daustazula eskeko landeñari (2) emoten dautsadana; nire bi-

(1) Igitu = mobidu.

(2) Landeñ = pobre.

jotza erukioa ixan dalako, Zeu be garbitokiko arimaentzat bigun eta erukitsua ixango zareala ta parkatuko dautsezuela euren zora; zintsiko dot txiruai emoten dautsedana, zeure eskuetan ipinten dodala ta bifaxenean aufkitzen ba-naz, zeuk Jaun ofek, zeure eskuetan geitu ta ugari-tuta, biurtuko daustazula; eta aonelan, garbitokiko arimak eta neureak, neure erukizko egi-penaen bidez, loztuko dabela betiko zorijona.

Ogetairugaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta laztasunak

I

¡Laztasunak! Ixenak bakafik bildurtu ta ikarutzen gaitu gauŕ-eguneko kristiñau bupera (1) ta atsegin zaleak. ¡Baruak! ¡laztasunak! ¡Zigor-kadak! ¡Aragija eziten daben nekaldijak! Gauŕ-egunean, ¿nor azaŕtu aitatzen be antziñako kristiñabak egiten ebezan ildura ta nekaltzeak? (2) Au ta guzti be ¿ez al-dagoz gauŕ-egunean gixaseme ta emakume asko antziñako kristiñaben nekaldijak bexen andi ta andijaguak igaroten dabezanak? ¡Bai beintzat!; baña aek Jaungoikuaŕen eta euren arimaen betiko zorijona irabazteaŕen, aŕtzen ebezan nekeak; eta gauŕ-eguneko kristiñau askok, euren ames zoruak loŕtuteaŕen, igaro daroyez neke gaŕatzak. Aginpide ta ospe edo entzute andija jadeste aŕen batzuk; ogasun, aberaski ta atsegiñak eskuratzeaŕen beste batzuk, aŕtu daroyez buruauste gogoŕak eta galdu daroye euren bake ta osasuna. Baita emakume buperatxuak be, euren buruak iñor ez lez apainduta eta euren gorputzak, gorua bexen zuzen eta lirain erabilteaŕen, jasan

(1) Buperea = ezerczgatik pupu aŕtzen dauna.

(2) Nekaltze. mortifikaziño.

edo igaro daroyez sañtan, bixikerarik gogofena egin eben santuak baño be nekaldi gogofaguak

Eta luñeko uskerijak loñtuteařen añtzen diran nekeak ¿ezin ete-leiz igaro Jaungoikuařen? ¡Bai, luñeko gauzen zaletasuna bexen sakon sañtu ba'ñitiz bijotzetan Jaunagazko maitetasuna! Baña itxi daiguzan alde batera santu edo donien nekaltze gogofak, eta aitatu daiguzan arima gaxoen alde, edozein kristiñauk eñez egin daiketzanak.

Askok esan daroye ezin dabela egin baraurik, luzaro ezin egon dirala-ta zeozertxu añtu barik; baña ¿nor da bere buruari gozafkuntxuen bat (*gustotxuen bat*) ukatu ezin leikiona, osasunaren kalte baga? Gogoz jango leuken janarija edo pozik edango leuken edarija itxi-ta, nai bitañtietan ezer añtu barik egon-da, edonok egin daike osasunari kalterik eztakañtsan barau txikija. Mesa entzuteko ta arimari yagokazan biañkun eta oneraspenak obeto egiteko, goxetixuago jagita; soñeko bigun eta edeřen orde, latz, maiz eta ezañaguak erabili-ta, egin daike edonok osasunari ez ogasunari kalterik eztakañtsan ilduratxua (1).

Aonez gañera, osasunik makalena daukanak be, beti ukatu daike, zetan-edo-atan, bere burua; geure begijai edozer ikusten, belañijai edozer entzuten eta miñari gogora yatoñkun guzti-

(1) Ildura = mortifikaziño.

ja esaten itxi ezagaz beste barik, egin daikegu sentsunetako barua. Jesu-Kristo'ri jafaitzeko gogua; auxe da bial dana. Jesu-Kristo'k barau luzeak egin eta nekaldi gogofak igaro ebazan gure onerako. Jaunaren antzekua ixateko gurari bixija daukanak, ezez aufkituko ditu, bere burua ukatu ta ezi ta nekalditxuak egiteko era egokijak.

¡O neure Jesus laztan-lasztana! Zeure Ama nekatuaren altzuan, zeure gorputz zauritua dakustanean, (1) ezagutzen dot ondo neure ogen edo pekatuen astuntasuna. Zure gorpu, nekez ausi ta bifindua da nik, neure gaiztakerijakatik, egin bial neunkezan eta egiten eztozanan ildura, laztasun eta nekakintzaen jafaibide ta eredia. (2) Burdin-estuntzarik gogofenak ba ¿nor mindu ta nekaldu dabe zu, Jaun ori, arantzazko burestunak (3) nekaldu (4) zinduzan beste? Zuri, zigoftau zinduezanean, emon eutzuen astiñaldija baño astiñaldi gaftzagorik ¿nori emon yako? ¿Egin ete-lei inok, Zuk ozpin eta beztunagaz bakañik, egin zendun baño barau gaftzagorik? Euki ete-lei inok, Zuk zeure erijotzaldijan euki zendun baño oe gogofagorik?

Aoneik nekaldi guztijok aftu ta igaro zenduzan gure betiko zorijona egiteaŕen eta guk ¿ez ete-dogu nekaldi txikirik be aftu gurako, Zuri

(1) Dakustanean = ikusten doñanean.

(2) Eredua = modelo.

(3) Burestuna = koroya.

(4) Nekaldu = neketan ipiñi, atormentau.

eskañ-onez erantzun eta garbitokiko arimai laguntzeko?

Ozpin eta beaztunaz mingoztu eban Jaunak bere barua eta nik ¿ez ete-dot egin gurako baraurik? Neure pekatuakatik dakust (1) osoro zauritua neure Jaunaren gorputza, ta bañiro gaiztakeririk egiñazo eztaidan ¿eztot ezi gurako neure aragi zitāla? Neure maitetasunañen dakust neure Jaungoikua neke ta miñez ausita; bere maitetasunañen ¿ez ete-dot, ba, bezau, ezi ta nekaldu gurako neure aragi gaiztua? Lagun zakidaz, ene Jauna; emon egidazu, añen, neure burua ukatu, neure aragija ezi ta berari nekaldijak añerazoteko biañ dodan gogo sendua. Bai-dakit kalbarioko bidea neketsua dala; baña kalbarioko bidea zerurako bidea dalako, jañaitu ta lagundu gura neunskixu zeure bide neketsuan; aonelan zeure irabazijak neugandu-ta, neure ta garbitokiko arimaen betiko zorijona jadetsi daikedan.

(1) Dakust = ikusten dot.

Ogetalauaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta eruapena (*pazientzija*)

I

Geure buruai nekalditxuak aiazoteko, safi askotan bijotz, gogo ta kemenik (1) eukiten ez-togulako; Jaunaren zuzentasunari geure zofen ordaña emoteko, alpeñ, nagi ta atzerakoñ ibil-ten garialako; Jaunak berak, bein baño safijago, bialtzen dauskuz neke, ezbiañ eta zoritxañ-ak, eurak eruapenez igaro-ta, geure zofetatik azkatu daiguzan geure buruak. Aonelantxe aitu ta jasan biañ leukez ziñeste bixidun kristiña-bak bixitz labuñ eta amaikoñ aonetan ikutzen dautsen ezbiañ eta neketxuak; naiz Jaunaren eskutik, beste bitarñteko barik, yatoñkozala, naiz Jaunak beste norbaiten bidez bialtzen dautsazala.

Edozelan be, arte ta eruapenez aitu ta igaroten dan ezbiaña, Jaungoikuak ontzat aitu daroya; ta, naiz geure zofak naiz garbitokiko ari-maenak ordaintzeko, kitugafi aberatsa ixaten da.

Aonelako ezbiañak, askotan beintzat, ezin geugandik jauñti ta uñdu daikeguz; ero ta zoruak ixango gintzake, ba, euretan arte ta erua-

(1) Kemena = *balorea*.

penik euki-ezagatik, galduko ba'genduz. osterantzian e'ez geugandu gengikezan irabazijak. Nai-ta-ez igaro biar dogun ezbiar eta nekea; askok bape onura barik eta mingoztasun andijaguaz igaroten dabena, eruapenaren bidez geuretzat onuratsu ta osasungafi egitea, jakituri ta zurtasun andija da.

Eruapenak, neke ta zoritxa'etan. gauza bi egiten ditu: lenen, nekalditik onura ta ogasuna atera, eruapenez igaroten doguzan zoritxa'akaz. ordaindu daikegulako Jaunari dautsagun zo'ra; biga'eren, zoritxa'aren astundasuna arindu, nekiaren ga'aztasuna gozotu, eruapenak kemen eta inda'ra emoten dauskulako, geure zoritxa'ra bijotz senduagaz jasan (1) edo igaroteko.

Aonelan, ezbiar eta zoritxa'ak, txirotasun eta gexuak, bere pekatuen kituga'itzat etsi edo artu-ta, eruapenez daruazan kristi'nakak, bixitz aonetan ordaindu daikez bere gaiztakerijen zo'rak; eta, garbitokiko arimaen aldez Jaunari opaldu ezkeru ba'riz, arindu ta labur'tu be bai-daikez aen gogo gaxuen nekeak. Batez be erijotz au'eko gexuan, irabazte andijak egin daikez zi'ñeste bixidun kristi'ñabak. Onetsi ba-dagi gexua bialdu dautsan Jaunaren eskua, ta bere neke-mi'nak eta erijotzearen mingoztasuna, bere gaiztakerijen zigo'rtat artu-ta, Jaunari eski'ni ta opaldu ba-dayoz bere zo'fen alderako ta utse-

(1) Jasan = sufridu

gite guztijen parkamen osua jadesteko, bildu edo batzauko daun ogasuntegija ezta edozelakua ixango.

II

Zu, Jaun ori, obiratu baño len ¡neure Jesus maitea! zeure ikasle efukiof bik, usaingafijak aftu-ta, usaindu eben zure gorputz ilotza. Mingotz-mingotza zan Jose ta Nikodemus'ek, zure gorpua usainduteko, beste usain gozuak baño ugarijago erabili eben mifa-usaña. Zuk be, ene Jauna, safitan mingotzuten dozu ezbiaf eta zoritxafakaz, zeure ikasle zintzoen bixitzea. Asko maite dozuzalako, nekalduten dozuz safitan zeure aizkideak, zeure antz eta irudija afazo-ta gero, ixan dakixuzan len baño be maitegafijago.

Baña guk eztoguz aonelan aftuten gauzak, eta zoritxaf guztijak begitanduten yakuz zeure asafearen zigořkadak, safi askotan ixan afen zeure maitetasunak geure arimearen onerako bialtzen dauskuzan eskař osasungafijak. Aurfantzean zufagua ixango naz, ene Jauna, ta uste ixango dot Zuk damostazun (1) ziořkadea ta bialtzen daustazun nekaldija, neure onerako emon eta bialtzen daustazula; uste ixango dot eztala arerijo gaizkin eta etsai ankefaren (2) eskua ni zigořtau ta nekalduten nabena, bere semiaren ona nai daun Aita maitakořaren esku

(1) Damostazun = emoten daustazun

(2) Ankefa = kruela.

biguna baño. Laztanduko dot, ba, jo ta astindu nagijanean be, zure esku bigun eta maitakoña; eta onuragañi ixan dakidan, eruapenez aitu ta igaroko dot bialtzen daustazun nekea.

Gure gaiztakeriak zirala-ta, edan zendun zuk zeure nekauzte gogor edo paziño gañatzaren mingoztasun guztija; guri bakarik emoten dauskuzu bakotxari apurtxu bana. Berak lenengo edan-da, edanazoten dautsan lez ama laztanak bere ume gexuari, osasunagañi ixango yakon osakai (1) mingotza, alantxe Zuk be, gure afitik aitu ta edan zendun zeure nekauztearen gañatzasun mingotza; zeuri Jaun laztantsu ori begiratu-ta, ikara barik aitu gengiken, geure arimaren onerako bialtzen dauskuzun nekaldija ta emoten dauskuzun osakaya.

¡O neure Jesus maitagañija! Nire gaiztakeri andijakatik zigoña biar ba-dot, ementxe zigof-tau nagixu; baña gero enagixu, aßen, betiko ne-keak dagozan geztoteira bialdu; nire dongake-riak dirala-ta, nigaz asafe ba-zara, biztaldi la-bur aonetantxe ase egixu zeure asafea; baña gero, beste bixitzan, emon egidazu, Jauna, beti-ko bakea; oraintxe agertu egixu, alan biar ba-da, zeure zuzentasuna; baña gero egikezu ni-gaz be, neuk orain garbitokiko arimaentzat das-katzudan (*eskatzen dautzudan*) erukija.

(1) Osakai = e emedio.

Ogetaboskaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta maitasunezko egikixunak

I

Auferago aiatatu doguzan-*ez* gañera, garbitokiko arima gaxuak urgazi (1) ta sorosi (2) al ixateko, bere esku-eran daukaz kristiñabak beste egikixun érez eta onuratsu (3) asko. Gauza onak egitea, diran lakuak dirala, beti da guretzat eta geuk lagundu nai dautsegun arima gaxuentzat, osasungafi. Aonelako egikixun onak, eurenez dakaftse egiten dauzanari onura ta irabazija, ta aonezaz gañera, geyenetan egoten dira parkamenez aberastuta. Guztijak ezin aiatatu geinkez, asko diralako; bakañik gomutauko doguz iru garayenak, érezenak eta onuratsuenak-be eurok diralako.

Lenena da gure Jaunari egunoro bixita edo ikeñtaldija egitea. Geugandik uf-uféan, altarako sakramentuan, euki Jesu-Kristo gure Jauna, ogi-irudipean estalduta bai, baña bere ixate oso-osuan; Berari ikeñtaldija (bixitatxua) egitea guretzat ain gauza éreza ixan; eta geure bíañixen eta estualdijetan lagundu ta sorosi gagikezan Jaunagaz, geu ain otz

(1) Urgazi = lagundu.

(2) Sorosi = sokofidu.

(3) Onuratsu = onura edo probetxu andiko.

eta aitzukoak ixatea; egiz eta benetan, ixaten yakun baño gauza saminagua ixango litxakegu, geure itxitasun eta nagikeriak, Jauna ikeritzeko gogua kendu dauskunean, ziñestea be otzitu ezpa'leusku. ¿Zer. ba? Etxaku sañitan gexotuten geure arimea? Eta ¿ez al-da Jesu-Kristo arimaen gexuak osatzera etoñi zan Osatzale zerutaña? ¿Eztogu esaten geure gogua makal eta indaíge daukagula? Eta ¿ez al-da Jesu-Kristo Jaungoiko indaítsua, makalai sendotasuna ta indaígai indaña emon dagikioen alorodun (4) Jauna? ¿Eztegu esaten garbitokiko arima gaxuai lagundu gura geunskioela? Eta ¿ez alda Jesu-Kristo, garbitoki ta zeruko atepak, berak nai dauenean, naiz sañatu naiz idegi daikezana? ¿Zer dala-ta aiztuten gara, ba, geure uf'ufean daukagun Jaun maitagafi aonegaz? ¿Nun aufkitu daikegu geuretzat poz eta atsegin andijagorik, arima gaxoentzat laguntzale obarik?

Bigañena da kurutzetako bidea. Mesa santuan ondoen; baña aonen uf'engo, kurutzetako bidean gomutalduten dogu, beste inon baño obeto, Jesu-Kristo geure Jaunaren nekauzte ta erijotz samingafatza. Kurutzeta bizkañian eruala, egin eban bein gure Jaunak kalbarioko bidea, bere zauri gordiñetatik erijon odolagaz goñituta itxi eban bide neketsua. Jaun laztantsu aoni jañaitu nai dautsan kristiñabak, eñez eta onura andijagaz egin daike kurutzetako bidea; baña

(1) Al-oro-dun = alizate guztija daukana.

Elexeak dirakaskun (1) lez egiteko ta parkamenak irabazteko, geraldí bakotxean gogoratu bíař da Jesu-Kristok gelune aretan igaro eban nekea. Kurutzetako bidea, bíař dan lez egíten daunak, zenbatu ala parkamen irabazi daroyaz, eta berak nai ixan ezkeró, eskeiñi daikez arima gaxoen alde, irabazi dituan parkamenak eta Jesu-Kristok igaro zituan nekeak.

Irugařena da agurřta deuna (*eřosarijo santua*). *Ze gauza eřezagorik asmau daiteke?* Alan be, eřeztasuna beixen andija da berak dakařskun onurea (2) ta garbitokiko arima gaxoentzak ixan daiteke geuretzat bexen osangařija. Asko dira, ba, agurřta edo eřosarijuak daukazan parkamenak eta eurakaz sorosi (3) daikeguz garbitokiko arimak. Bařa, aonezaz gařera, agurřta deunagaz irabazi daikegu geure zeruko Ama laztangařijaren bijotza, geure eskarijak entzunik, luzatu dagijoen arima eřukařijai bere esku altsua. Eřosarijua geure eskutan dogula, geure zeruko Ama samurari agurř-egíten dautsagunean, uste ixan daikegu, itxasoko uretara jausi diranai, uretatik urřten dagijen, txikot bat jauřtíten yaken lez, geuk be garbitokijan, ořaze ta suzko itxasuan dagozan arima eřukařijai, eřosarijua bialdu ta jaurřtíten

(1) Dirakaskun = irakasten daukun.

(2) Onurea = probetxua.

(3) Sorosi = sokoridu.



daütsegula, berari eldu edo oraturik, irabazi daikien zeruko atsedeen-kaya (1).

II

Lotza ta ikara andija igaro bialko dot, neure Jaun zuzena, Zure aufera nuanean, orain nagi ta ardura bakua ixanik, galtzen ba-dodaz Zuk, neure arimearen onerako ain eskuera ipiñi daustazuzan ufgazpen eta laguntzak. Inok be ezin esan daike, berak egin ezin daikezan egikixunak ixentau dautsazuzala; guztijok dira, ba, bata bestia baño ezezaguak eta guztijok edonoentzat egokijak. Efeztasun bardiñagaz egin daikez, ba, aberatsak eta txiruak, senduak eta makalak, jakitunak eta gitxi dakijanak; eurak egiteko ezta bial, ba, ez jakituri andirik, ez indaifik, ez aberastasunik, ez aldi luzerik. Maitasunaren egikixunak dira ta eurak ondo egiteko, bakaifik maitetasuna bial da. Jaungoikua, garbitokiko arimak eta bere burua zintzo maite dituanak, geyagoko ogasun edo aberastasun barik, ziatz eta ederto egin daikez Zuk, Jaun ofek, ixentau dautsazuzan egikixun aonek.

Zure ikaslak, ene Jaun ona, ixara zuri baten batu eben zure gorpua ta ipiñi eben ilobijan, ari-loza bategaz estaldurik ilobijaren agua. Gero zu ikusi ezafen, bai-ekien antxe zengozala, ta Zeuganako maitetasunak eruaten ebazan

(1) Kaya = portua.

zeure ondora. Jazopen aonegaz gomutauko naz eta gomuta aonegaz biztuko dot, ogi-irudipean zagokuzan Jaun ori ganako zaletasuna, ta Zeu egunoro ikeftu edo bixitatzeko gurarija. Kuru-tzetako bideak ekañiko daustaz neure gogora zure Ama lafi ta nekatuaren oñatzak; berak egin eban, ba, beste iñok baño lenago kurutzetako bidea, barijeku santu afatzean, zure gorpua ilobijan itxi-ta, zeure oñatzai jañaitzen eutsoela, tamal eta samiñez beterik, itzuli ta jatsizanean kalbarioko menditik Jerusalem uri eskaf gaiztokorantza. Eñosarijo santuan gogoratu ta auznaftuko dodaz banabana, zeure bixitza ta zeure Ama maitearen bixitzako atsegin, nekal-di ta garaitzak, euretan irakasten yatana ondo ikasi ta zintzoro bete-ta, loftu daikedan garbitokiko arimaentzat eta neuretzat betiko zorijona.

Ogetaseigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta jaraibide ona

I

Ba-leite gutariko batek baño geyagok bere bañuan kezka askotxu eukitea, gogoratzten dauanean bere jaraibide dongakaz, baten baño sañijago emon dautsala aúekoari ogen edo pekaturako bidea; berak gaiztakerijak egiten irakatsi eutselako, arima bat baño geyago biar ba-da, orain garbitokijan egongo dirala. Geure autuetan eta geure egitadetan ardura bakuak eta buru ariñak ixaten garialako, bildur ixateko da, geuk uste dogun baño sañijago emoten ete-dautsagun aúekuari txañerako oña, gaiztakerirako bidea.

Augatik gauza ona ta kristiñau zintzo guztijok euki biar geunken oitura edo ekandua da, geure efuz, biar ba-da, garbitokijan dagozan arimaen alde, berarizko eran eta sañijagotan, geure otoi, efegu ta eskarijak zuzendutea.

Edonok dakus, ba, geuk bide dongea erakutsi geuntsalako, norbait garbitokira juan ba-da, beria ezeze geuria be bai dala efuba; eta geure jaraibide txañakaz kalte egin geuntsalako, biar kun edo obligaziño estuagua daukagula berari, al dogun bestian, lagundu ta egin geuntsazan kaltien ordaña, albait ondoen, emoteko. Aúe-

rantzean kezka bafirrik euki eztaigun eta orain arteko erfu ta okefak zuzendu daikeguzan, gauzarik onena ixango da beti, edonun eta edonori jafaibide ona emoteko asmo sendua artzea. Jafaibide txafak kalte andijak egin daroyaz; kalte aoneik gitxitu daikeguz guztijai ikasbide ona emonagaz. Auferkuai ikasbide ona emoteko, txitean-pitean eukiten dogu erea; emon geinke, ba, jafaibide ona etxean, kalean eta elexan, geure ibilkunde, autu (1) ta egikixunetan, kristiñau zintzuak, Jaunaren bildur eta maitetasunean bixi dala, erakutsi dagiken toki guztijetan.

Eta erea dogun guztijan emon bial geunke jafaibide ona, beronek, beste ezer baño obeto, Jaunagana daruazalako arimak eta beronegaz sorosi ta lagundu daikeguzalako inoren ikasbide txafak garbitokira eruan ebazanak. Egin daigun, ba, al doguntxua, auferantzean guztijai ikasbide ona emoteko; orain arteko geure jafaibide dongeakaz auferkuai egin dautseguzan kalteak, albait ondoen ordaindu, kitutu ta osatzeko.

II

¡O geure Beferosle maitagarija! Gure zorijon betikua egiteafen zeure bizkafean artu zendun egikixun andija amaitu zenduneko; zure gogo maitatija, zure arima laztantsua, gorputzetik urten eta bertatik, luzapen barik, jatsi zan

Autu = konbersaziño.

Abraan'en ilundegira, an egozan arima zuzen eta doneai (1) bañi-ona emotera. Zure arima aintzatsuak, (2) bere argi ederağaz, argitu eban zan ango iluñak, bere pozagaz poztu eban arimak, bere indağaz idegi eutsoezan atea eta urten ziran ilundegi aretatik atsegiñezko argira, an egozan arima done onetsi ta zorijontsuak. Eurak ixan ziran Zuk, Jaun ofek, zeure nekauste ta erijotzako irabazijakaz, lenen aberastu zenduzan arimak; eta eurak Zuri egin eutzuezan agur eta eskağak, Zuk zeure erijotzeagaz irabazi zendun garaitza andijagatik, lenen entzun zenduzan agur gozo ta eskağ zintzuak.

¡Andija benetan ixango zan aen arimaen poza, iluntasuna itxi-ta, ikusi ebenean betiko argija! ¡Andija euren eskağ ona ezagutu ebenean zure nekeak ixan zirala euren atsedena, zure atsekabeak egin ebela euren zorijona ta zeure erijotzeagaz lořtu zeuntsela betiko bixija! Baña txikağagua etzan ixango zure arima edeğ eta maitatijaren alai ta poza, ekusanean (3) lořtu ebala bere neke ta oñazien sarija ta egin ebala arimaen zorijona; arima zorijontsuak dira, ba, zure garaitzaren irabazkintza oso, bete ta ugarija.

¡O garaitzale andija! Garbitokiko arima ga-xuak be euren zofetatik azkatu egixuz, eta lu-

(1) Done = santu.

(2) Aintzatsu = glorioso.

(3) Ekusanean = ikusten ebanean.

zatu barik, emon egijoezu betiko zorijona, aonelan bete ta osotu dedin zure garaitza edeña. Zure odola ixan bekijoe, afen, euren betiko osasuna; zure erijotzea, euren betiko bixija, ta zure garaitzea, euren betiko bake ta atsedena, Zeu Jaun ori, euren zorijona egin zendun Jaun laztantsu ori, aldi oro onetsi, bedinkatu ta goratu zagijezen zeruko aingeru ta doneakin batean.

Zure gose ta egañijan dagozan arima eñukañijai lagundu ta nik, eskañgaiztoko aonek, Zurⁱ egin dautzudazan irañen zoñak ordaindu al ixa teko; gaurganik añtzen dot guztijai ikasbide ona emoteko asmo sendua, aonelan zuzendu daikedan, neure buru-arinkeriz, auñekuai egin dautsedan okeñ eta kaltea. Emoidazu, ba, zeu re laguntasuna ta sendotu egixu nire gogua, txañetik aldendu, onari jañaitu, guztijai ondo irakatsi ta neure ta uñkolagunen zorijona egin daidantzat.

Ogetazazpigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ta arima gaxuen aldezko ziñeskaña (*promes edo botua*)

I

Auferago aítatu doguzan egikixunak, sorospen (1) eta laguntza on-onak dira garbitokiko arimaentzat; eurakaz arindu ta labuñtu daikeguz, ba, arima gaxuen neke-oñazeak eta idegi geinkioez presondegi aretako ateak; baña beste ufgazpen edo laguntza bat daukagu orain artekuak baño obe ta indartsuagua, lenago aítatu doguzan guztijak beragan artu ta saratzen ditualako, ta maitetasun uts, garbi ta zintzuaren egítade andija dalako. Au da garbitokiko arima gaxuen aldez kristiñabok egin daikegun ziñeskain edo botua.

Gauza on eta osasungarriak egíteko, asko edo gitxi nekatu egin biar ixaten da: augatik egítade on guztijai begiratu geinkioe alde bitatik: on eta zuzenak diran aldetik eta neketsuak diranetik. Egítade onak, zuzenak diranekotz euren egilearen gogua zuzendu obetu ta orniduten dabe; egile beraren irabazijak dira ta besteri opaldu ta emon ezin daiketson ogasuna; baña egíte onak, neketsuak diranekotz, ordain eta kituga-

(1) Sorospen = sokofu.

řijak be bai-dira, eurakin ordaindu ta kitutu daikegulako geure dongakeri ta pekatuen zořa.

Kristiřaben arřian, alkařganako maitetasuna sendoruago bixi dedintzat eta maitetasunezko egikuntzak ugarijaguak ixan daitezcan, Jaungoikuak iragaři dausku, kristiřau batzuk, geure egite onakaz, ordaindu ta kitutu daikeguzala beste batzuen zořak, bai luřean bixi diran geure urkolagunenak ta bai garbitokijan dagozan arima gaxuenak. Augatik edozein kristiřauk opaldu ta eskiři leyoz Jaunari garbitokiko arimaen alde, berak auřerago egin dituan eta geruago, erijotzarařo, egingo dauzan egite on guztijak. Bardin eskiři daikez, bere erijotz-ostean, beste batzuk bere arimearen alde Jaunaři opalduko dautsezcan ogen-ordain (1) eta kitugařijak, eta beretzat ezertxu be gorde barik, Andra Marijaren eskuetan ipiři daikez, Ama samur aonek zabaldu daizan, garbitokiko arimaen arřtean, berak nai daun lez.

Eskintzau oso-osua ixan biař da; norberetzat batxu be itxi barik, kitugaři ta ogen-ordain guztijak arima gaxuen alde eskiři biař dira; bestelan eskintzeak eleuke eukiko berari dagokion mami ta indařa. Ziřeskain edo boto au geure geideagazko maitetasun ařigařijaren egitade edeř-edeřa da: auxegatik dauko arima gaxuen zořa ordaintzeko, ain indař andija. Elexeak zuzenetsi edo ontzat emon dau arima gaxuen al-

(1) Ogen-ordaña = pekatuen satisfaziřoa.

dez egin daikegun eskintzari au, ta aonezaz gañera, kristiñaben bijotzak aonetaruntz igitu ta itzuliteafen, parkamen askogaz aberastu dau eskintzea bera, ta eskañ ugaridakaz egiten daun kristiñaba.

Arima gaxuen aldez aonelako ziñeskaña egiten daben abadiak emon dautse, Mesa guztijetan eta edozein altaratan, parkamen osua irabazteko almen eta eskubidea: euren pekatuak autofu ta gure Jauna artzen daben kristiñabai emon dautse, Jauna artzen daben bakotxerako parkamen osua; eta Jauna artu ezin dabenai be parkamen bardiña emon dautse, astelenetan arima gaxuen aldez Mesa entzun ezkerok; ta astelene-tan euren zeregiñak eragotzi edo galerazoten ba-dautse. ufengo igande edo domekan be irabazi daikie. Agiri da, ba, Elexeak garbitokiko arimaen ardura andija daukala ta, bera dan lez, gu be arima aekaz efukioñ eta bijotz-zabalak ixatea nai daula.

II

¡O neure Jaun laztantsu ta efukioña! Zure Ama maite ta kutunari, ondo baño obeto, deitzen dautsagu efukidun Ama ta garbitokiko Efegiña, guztiz indartsua dalako, arima gaxuen aldez, bere bitartekotasuna. Bere atsekabe samin eta negañak, zure odolagaz batian, ixan ziran gure arimaen osasuna: augatik ondo baño obeto deritxogu geure Ama laztan-samuña; Zuk zeure nekauzte ta erijotzeagaz lez,

berak be bere neke, atsekabe ta negaf mingotzakaz beferosi (1) ebalako gure arimea. Guztiz osasungafijak ixan yakuzan zure Ama nekatuak, bere bakaftasun lafi ta itzalean, isuri ebazan negafak; osasungafijak, zure gorpua ilobian itxi-ta, etxeratu zanean, zure pasiño ta erijotz gogofa gomutaurik, bere Bijotz samuf, maitakof eta laztantsuak, gabeko bakaftasunean, igaro ta iruntzi ebazan lafitasun eta atsekabe andi ta mingotzak. Aonexek zure Amaren atsekabe, lafitasun, neke ta negafok gomutara-zo nai neunskixuz, Jaun ona; eurai begiratu-ta, arima gaxuakaz osoro efukiñu dedin zure Bijotza.

Kristiñau askori emon egijoezu, Jauna, garbitokiko arimaen aldez eskintza osua egiteko ta zeure Amaren eskuetan euren egite on eta kitugafi guztijak ipinteko gogo ta gurari efukitsua; erakutsi egijoezu aonelan egin afen, eztabela ezertxu be galduko ta bai irabazi inok uste daun baño geyago; adierazo egijoezu, ogasun asko bildu ta batzeko, auxe dala biderik labuf eta efezena. Luñean dakusguna, aonetan be jazoko da; luñeko ogasunak, esku onetan dagozanean, geitu ta ugarituten diran lez, aonantxe, arimako ogasunak zure Amaren eskuetan ipinten dabezanak be, erijotzako orduan geitu ta ugarituak aufkituko dabez.

Garbitokiko arima gaxuen aldez, zikoizkeri

(1) Beferosi = efedimidu.

barik, bijotz zabalagaz, bere egitade on guztijen kitugañijak eskiñi ta opaltzen dituanak, sendoro itxaron daike Zuk, beste iñok baño Bijotz zabalagua daukazun Jaun oñek, zeure paziñoko irabazijak emongo dautsazuzala ta garbitokira juaten ba-da be, lasterñxe urten dagian, zure Ama samuñak luzatuko dautsala bere eskua. Emoiguzu ba, Jaun laztantsu aonk, ari ma gaxuakaz eñukioñak ixateko biar dogun eskañ eta laguntasuna, eurak eta geuk irabazi ta loñtu daigun zeure amaibako eñukijaren betiko sarija.

IRU-URENA

Ogetazortzigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija ezta aintzat ez artzeko gauzea

I

Kristiñau askok eztabez aintzat artzen ez garbitokija ez ango neke ta oñazeak. gauza ezerezak eta jaramonik zof etxakenak ba'lira lez: garbitokijari eztautse ixaten bape bildufik, utsegite txikijai be eztautsen lez ixaten bape gofotorik. Buru-arinkeri andijaz uste ixaten dabe, umekerija baño eztala utsegite txikijai jaramotea; eta bardin umekeritzat euki daroye garbitokijagazko bildufa. Baña utsegite txikijak, beste ezegatik ezpa'litzaz be, Jaunaren irañak (*ofentzak*) dirialako, benetan gofotogañijak dira, ta garbitokija be, pekatuen zigoñ astuna dalako, bildufgañija da.

Jaunaren zuzentasuna beti da, lotsa ta itzal andiz begiratu bial dogun gauzea; baña Jaunaren zuzentasunak geztotei edo inpernuan baño be argiruago, darakus (1) garbitokijan bere zofoztasuna: geztoteyan sematu ta zigoñtau daroyaz berari jarki (2) yakoza arima dongeak;

(1) Darakus = erakusten dau.

(2) Jarki = añez jafi.

bere aizkitasuna nai ixan eztabelako, betiko bere arerijo egin diran arima gaizto-nabarmenak; baña garbitokijan zigoñtau ta nekatzen diñu bere aizkideak, berak maite dituan eta bera maite daben arima gaxuak. Etsai edo arerijuakin gogoña ixatea, ezta añañi; baña arerijuak areztala, aizkideak be zigoñgaz astinduteak, gogoñtasun andija dirudi. Egunen baten emongo dautse betiko laztan gozua; baña bijen bitañ-tian, erudun eta oñbandun ikusten ditualako, bialdu ta añazoten dautse bere zuzentasun zoñtzaren zigoñ astuna. Auxe berau egin eban Aita Goikuak bere Seme ta gure Jaunagaz; maite eban bere Seme bakaña, eruge ta maitagañija zalako; baña gure gaiztakerijak bere bizkañean añtu ta pekatari dongien antz eta itxureagaz agertu yakan... eta Aita Jaungoikuak gaiztakerijari eutsan goñoto andija iragañteko, bere Seme laztana sendoro astindu, zigoñtau eta nekaldu eban. Ixan dayogun, ba, Jaunaren zuzentasunari lotsa ta itzal andija eta garbitokijari, zuzentasunaren egite ta iragañkija dalako, bilduf osasunañija.

Utsegite txikijakatik, bere semiak gogoñ astinduten dituan eregeak, argiro darakusku (1) zuzena dala ta ezegañik be eztaula okeñtu nai bere zuzentasuna: argiro dagersku (2) zein ziatz eta gañatz zigoñtauko dituan bere menpekoen

(1) Darakusku = erakusten dausku.

(2) Dagersku = agertzen dausku.

efu ta dongakeri andijak, ain gogof nekalduten (1) dauzan ezkeru bere etxekoen utsegite txikijak. Aonelantxe Jaungoikuak be, garbitokiko arimak, bere aizkide diran arima gaxuak, astindu ta nekatzen dituanean; argiro darakusku, ikusi nai ba-dogu, ezegatik be eztala okertuko bere zuzentasuna, ta ikaragafija ixango dala bere asefiak arima gaiztoen gañera, bere arerijoen lepora, bialduko daun zigofa. Eztaigun, ba, inoz be jolastzat artu garbitokija. Jaunaren zuzentasuna bertan agertzen dalako, ixan dayogun beti zof yakan lotsa ta itzala.

II

Garbitokija, bial dan bestian, aintzat artzen ba-dogu, bere gomutea be osasungafi ixango yaku. Gomuta aonek emongo dausku, ba, bixitza zuzena egiteko, bial dogun indafa; Jaunaren bidean, alborantz egin barik, beti aufera juateko bial dogun kemena (2): gomuta aonek lagundu gagikez utsegite txikijai be gofoto ixaten, eta geure arimaren zuzentasun ornidu ta osua lortzeko, bizkof eta arduratsuago ibilten: gomuta aonek iritzaftu gagikez, arimaren epeltasun eta lozofuan jausten ba-gara; eta geure zoritxafez, pekatu astunaren oztasun eta erijotzea geure arimara sartzen ba-yaku, gomuta aonek zirikatu ta igituko gaitu, gaiztakerija itxi-ta, bafiro loftu daigun Jaunaren eskaft eta

(1) Nekaidu = neketan ipini, kastigau.

(2) Kemena = alimua.

aizkitasuna ta aonek arimari damotsan (1) jaun-goikozko bixija.

¡O neure Jaun maitea! Zure berbizkunde (2) ospetsuan zure Bijotzak eta zure Ama laztantsuarenak aritu eben atsegin gozo ta poz andijagatik, eskatzen dautzut eztaidazula inoz be itxi pekatu astunean eta aonek arimeari dakaitsan erijotz bilduragarijan jausten. Au ta guzti be, neure argaltasun edo gaiztakeriz pekatu erijozkin eta astunean jausiko ba'nintz, betorkit beinguan gogora garbitokijaren gomuta osasungarija, ta berak iritza aritu, kiñatu ta bizkoritu begit neure gogua, pekatuaren erijotzea itxi-ta, berbiztu (3) dedin zeure aizkitasunezko bixira.

Andi ta bixija da, garbitokiko arima gaxuak Zu, Jaun ori, ikusteko dauken gurari, gose ta egarija; zeure arpegi edera ezin ikusi ixatea da eurak geyen mindu ta nekatuten dituan atseka-bea: eskatzen dautzut ba, neure Jaun maitagarija, zeure berbizkundeko pozaren izpi batzuk bialdu daizuzala garbitokiko arimakana, ta zerruan zorijontsuak poztuten dozuzan alai ta poz andijagaz arima gaxuak be, len-bai-len poztu ta zorijondu daizuzala. Entzun egixu, afen, nire eskarija, ta arima erukarijai emon egijoezu betiko atsedena.

(1) Damotsan = emoten dautsan.

(2) Berbizkunde = eferesuziño.

(3) Ber-biztu = bafiro biztu.

Ogetabederatzigaren egunerako irakurkixuna

Garbitokijatzazko bildur' la'egija ezta ona

I

Kristiñau batzuk garbitokija aintzat artzen eztabelako, jaramon gitxi egiñen dautse; beste batzuk, ostera, beraren bildur' la'egi euki daroye. Aitatzen daneko, bildur'-ikarea unetaraño sartzen yake, arimari jazo leikion ezbiaf' eta zoritxañik andijena dala uste dabe; eta garbitokijaren gomutea burura ba-yatofke, zorigezto baltzik baltzenaren gomutea ba'litz lez, bildur'-ikaraz burutik kendu daroye.

Ezta, baña ain ikarakof' eta bildur'gañija gure ziñesteak darakuskun garbitokija; Jaunaren zuzentasuna bexen argiro agertzen yaku, ba, garbitokijan, bere e'uki samu'fa: augatik zuzentasunak damotsan (1) gañaztasuna, e'uki laztantsuak ausiñu, bigundu ta gozotu daroya. Garbitokija ezta, ba, geztotei edo inpernua lez gofotuaren tokija, maitetasunaren abija baño. Arima gaxuak maite dabe Jaungoikua ta ondo dakije Jaunak berak be maite dituala. Eztabez gofotatzen Jaunaren zuzentasunak a'fazoten dautsezan min eta atsekabeak; bestera, zintzorro damutu dan pekatarijak maitatzen dituan lez

(1) Damotsan = emoten dautsan.

bere gaiztakerijen orderako ixentau yakazan ogen-neke edo penitentzidak, arima gaxuak be, maite dabez ofbanetatik garbitzeko Jaunak afa-zoten dautsezan neke ta oñazeak.

Gaiztakerija itxi-ta, Jaunagana zintzoro biur-tu dan pekatarijak, bai-daki barau, laztasun eta nekeak gauza mingotz eta gañatzak dirala bere aragijarentzat; baña, au ta guzti be, eleukez itxi gurako, bere arimearentzat osasungafi di-rala ondo dakijalako. Aonelantxe garbitokiko arimak be, ondo dakije euren neke ta oñazeak, gañatzak ixan afen, onuratsu ta osasungafijak yakezala ta, neke-miñen erdijan be, eztabe gal-tzen euren eruapen eta bakea. Bañendiko gez-toteyan sartu diranak, betiko galdu dabe itxa-ropena; ilundegi aretan, ba, eztabe egundo be ikusiko itxaropenaren argi gozo ta atsegintsua; baña garbitokijan argi-dagi (1) itxaropen-eguz-kijak eta berak poztuten ditu arima gaxuak: bai-dakije, ba, elduko yakela andik urteteko eguna ta, galtzeko bildur barik, eskuratuko da-bela zeruko zorijona.

Azkenez, gixon jaungoiko-zaleak irakatsi dauskue, aingeru jagolak eztabezala izten gar-bitokijan be, luñean zaindu ta jagon ebezan ari-mak: emoten dautsezala, euren aldez egiten di-ran otoi, eřegu ta egite onen bañijak; eta alaitu ta poztu daitezana, iragañten dautsela zenbat la-

(1) Dagi = egiten dau.

buftu dan euren nekaldija ta uferatuez yoakela euren azkatasun- (1) eguna.

II

¡Neure Jaun 'eta Jaungoiko laztana! Zeure befbizkunde ostean, etzenduan bixi nai ixan, aŕtietan lez, zeure luŕeko aizkidiakaz; baña alan be, Zuk donoki edo zeruetara igon orduko igazi ziran beŕogei egunetan, ainbat bidaŕ agertu zintzakioen eta zeure itz leun eta gozuakaz euren bijotzak poztu zenduzan. Zeure Ama, Madalenea, emakume eŕukioŕak, zeure ikaslak, batez be Pedro ta Emaus'era yoazan bijak eta beste asko, atsegindu ta poztu zenduzan zeure agerkunde (2) alai ta pozgaŕijakaz: erakutsi zeuntsezan eguzkijak lez argi egiten eben eta ixaŕak irudijen zeure zaurijak, eta emon zeuntsezan zeure laztantasun samuŕaren ezaugafi zintzo-zintzuak. Aonelan, gerora begira egon barik, auŕetiaz ordaindu zeuntsezan, Zuk zerura igon eta lasteŕtxe, eurak luŕean igaro biaŕko ebezan naibage ta nekeak, eta ezautuazo euren nekeakaz zeruan irabazi eikiezan zorijonak.

Garbitokiko arimak zeure aizkideak diran ezkerro, ziñctsi ta itxaron daikegu, euren zoŕak ordaintzen dabezan bitaŕtian be, eztautzazueza-la guztiz ukatuko zeure ikaslai emon zeuntseza-naen antzeko gozotasun eta pozaldijak. Zuk,

(1) Azkatasun = libertade.

(2) Agerkunde = apariziño.

Jaun zuzena ta Aita biguna ixaten dakixu, ta zeure zuzentasuna agertzen dozunean be, aonen gañaztasunagaz zeure bijotzeko samuñtasun eta gozotasuna nastetan dozu. Zeure argi ta pozagaz poztu egixuz ba, Jaun samuña, garbitokiko arima eñukañijak, batez be nire senide ta aizkidienak; eta nire arimatxua ara juango ba' litz, ez egijozu, añen, ukatu, orain aentzat eskatzen dautzudan gozotasun eta poza.

Bijen bitartian, soñtu egixu kristiñaben bijotzetan, arima gaxuakanako maitetasuna, ta zeure eñuki andijaren ogasunak, euren alde, irabazteko gurari bixi ta sendua. Egunen baten agertuko zayakioen ezker, geure eskarijak entzunik auñeratu egixu eguna: agertu egijoezu zeure arpegi edeña, erakutsi zeure zorijon andi ta betea ta emon betiko atsedeen eta bakea.

Ogetamargaren egunerako irakurkixuna

Garbitokija guretzat opagari be ixan daiteke

I

Atzo esan gendun eztala ondo garbitokijari bildur lafegi ixatea; eztalako ixan be, batzuk uste daben lez, besterik ez lakö zoritxar baltz eta ikaragafija; baña uste dogu ilau amaitu baño len, pizka bat geyago esatea ondo ixango dala, bial dan lez adierazteko zer dan guretzat garbitokija. Ixan daiteke, ba, guretzat gauza opagafija ta eskatu geinkio Jaunari, bixitz aonetan gure arimea bere orban guztijetatik garbitzen ezpa-da, emon eta afazo dayola garbitokiko su garbitzalea, berauxe da, ba, orbandun arimaentzat, betiko zorijonera eltzeko bide bakafa. Aonelan, esan daikegu garbitokija dala zeruko atarija.

Geure betiko zorijona loftuko dogun ala ez ziuñ ezin jakin daikegu, ta gauza aonetzaz ez bai ta bildurik asko erabilten doguz: garbitokiko arimak onelako bildurik eztauke; arerijo guztijak batera euren kaltez jagiko ba'lira be, ditxoroen (1) zorijona ezin ostu ixango leuskioe. Garbitokira ezkerro, amaitu ziran ziltzaldi edo tentaziñoak, amaitu ziran pekatuan jausteko

(1) Ditxoroen = itxaroten daben.

añiskuak. Garbitokijan ezin daikez egin arimeak, luñean Jaunaren aurrez eta bere kaltez egin eikezan gaiztakeriak. Bere betiko zorija ebatzita dago eta loñtuko dau zeruko atsedena, lentxuago edo gerotxuago. Garbitokijan, neke ta oñaze artean egon añen, zerutaña da an dagan arimea: oraindik, egiz, ezin eskuratu daike zeruko zorijona; baña eskubide osua dauko, garbitokiko epea bete ta bere nekeak amaitzen diranean, zeruko zorijonaren jaube ixateko.

Bixitz aonetako itxasuan, galdu-gordean gabiltzan kristiñabok opagañitzat euki geinke arima gaxuen egokerea, ta eurak eñukañitzat euki leye gurea; aek, ba, zorijonezko eñi maitean ondiño sañtu ezpa-dira be, añisku bako kairaño beintzat eldu dira, ta gu bixitzako itxas bañuan gabiltz oraindik; okeñtu daikegu geure bidea ta onelan betiko galdu geure arimaen zorijona. Opa daikegu, ba, geuretzat eta geure senide ta aizkidientzat garbitokija; ta gero lan egin eta eskatu Jaunari, eurentzat eta gutzat labuñtu daiten an egoteko epea (1).

Garbitokijan tokitxu bat irabazteañen, ontzat emon geinkez bixitz aonetako neke guztijak. ¿Nok eleuke igaro gurako, luñean igaro leiken edozein neke, jakin ezkerro beragaz irabaziko daua zeruko zorijona? ¿Nok eleuke txikitat eukiko nekerik andijena, jakin ezkerro berak damotsala (2) betiko zorijonaren eskubide ziuñ eta

(1) Epea = plasua.

(2) Damotsala = emoten dauetsala.

osua? Garbitokiko arimak bai-dakije Jaungoikuak bere aizkitasunean aitu ta sendatu dituala; euren nekiakaz zofak kitutu dagiezanean, eskuratuko dabela betiko atsegin, bake ta zori-jona, eta bijen bitartean be, ezin galdu daikiela Jaunaren eskaí ta aizkitasuna.

II

¡O neure Jesus on eta Jaun maitagaríja! Zeure befbizkundetik befogeigarfen egunean igon zihan donoki edo zerura, apaindura, argi ta edertasunez jantzita. Zeure igokunde (1) ospetsuan zeuri begira zeunkezan zeure Ama lazta-na ta zeure ikasle maiteak: euren gorputzak lufean gelditu ziran, baña bijotzak zeugaz eruan zenduzan. Egun aretan bijotzetako maitetasuna baño etzendun zeugaz eruan; baña gero, gorputz eta arima jaso zendun zerura zeure Ama ta ikaslen arimak be eruan zenduzan zeugana,

Garbitokijan, zeu ikusteko gose ta egaríjan bixi diran arima gaxuak, gomutaten dabe zure igokunde ospetsua, ta gurari bixiz itxaroten dabe, eurak be zerura igongo diran egun zori-jontsua, Zuk agindu dautsazue, ba, zeruko atsedena; ta pizka bat luzatuten badautzazue be, bai-dakije zeu igon zihan lez, eurak be, egunen baten, jasoko dozuzala. Benetan, opa ixan daike-

(1) Igokunde = asentziño.

gu geuretzat be, aen arima gaxuen zoriya (1 ; guri, ba, luŕean bixi garianoi, emon dauskuzu, bai, betiko zorijonaren itxaropena; baña ziuŕtasunik ez, aei arima eŕukaŕiai emon dautsezuen lez. Bixitz aonetako bidean aŕi laban asko dagoz eta eŕez laprast egin daikegu: iraindu geinke geure Jauna ta galdu bere aizkitasun eta eskaŕa; eta erijotzea gitxijen uste danean, etoŕi oi dalako, Jaunaren aseŕian bixiten ba gara, amildu geinke beko baŕendira geure arima gaxua. ¿Zein ete-da, ba, zori ohea, garbitokijan bixi diran arimaena ala luŕean, galtzeko aŕizkuan bixi garean kristiñabena? Uste ixan daikegu arima gaxuak, nekez ase beterik egon aŕen be, gu baño zori obekuak dirala.

Augatik egin biaŕ dogu alegin, garbitokiko arimaen aldez egiten doguzan elizkixun, otoi eskari ta gañerako gauza onak, eurentzat lez guretzat be onurakoŕ (2) eta osasungaŕijak ixan daitezcan. Itxaroten dogu, Jaun eŕukitsua, geuk arima gaxuen onerako eskatu dautzugun lez, eurak be geure aldez eskatuko dautzuela, ta ila aonetan gogoratu doguzan zure bixitzako neke, atsegin eta garaitzak, guztijoi osasungaŕi ixango yakuzala.

Zeure igokunde ospetsu ta zorijontsuak geure gogua jaso begigu; gure bijotzak zeuganuntz eruan egixuz, zeure maitetasunaren indaŕak

(1) Zoriya = suertea.

(2) Onurakoŕ = onura edo probetzu asko dakaŕena.

beti zeruruntz zuzendu dagixan gure oñatzak. Zeure maitetasun bero-garñtsua iragarñteko, zeruruntz ziñuazala azkenengo aldiz onetsi edo bedinkatu zenduzan zeure ikasle maiteak eta zeure Ama laztana. Eruki zakigu, Jauna, ta Aitaren eskoma-aldean jesarñta zagozan bakaulki (1) aofetatik bialdu eiguzu guri be zeure oneskunde edo bendeziño maitakoñ eta onuratsua. Ontzat añtu egixuz ila onetan opaldu dautzuguzan elizkixunak; entzun egixuz zuzendu dautzuguzan eskarijak, eta zorijondu egixuz garbitokiko arimak. Eurakaz lez gugaz be efukitu zaite ta emoiguzu esku zabalez zeure eskañ eta laguntasuna, guk be loñtu daigun, arima gaxoentzat eskatu dautzugun zeruko atsenden eta zorijon betikua.

R. I. P.



(1). Bakaulki = tronu.

AURKIBIDEA

Gertutzeko otoyá.....	5
Azken-eskarijá	6
I. Garbitokija, geure ziñeskintzako egija. — Jaunak nekauzte aurfetxuan, bere Amari egin eutsan agurá	7
II. Garbitokija ta gure eskaríjen aldin edo indará. — Jaunak, azken apari ostean, iragaríten dau bere ikasle batek salduko daula	10
III. Garbitokija ta Jaunaren zuzentasuna. — Maitetasunezko ikuíton edo sakra- mentua	12
IV. Garbitokija ta Jaunaren erukija.— Getsemaniko odol-ixerdiája.....	15
V. Garbitokija ta alkaríganako maitasu- na.— Judas'en mosu lotsagaríja.....	18
VI. Garbitokija, bixitza epelarentzat egu- noroko uarípena.— Anas'en etxean Jau- nak arítu eban betondokua	21
VII. Garbitokija, gure damu txikaríaren ornija, — Kaifas'ek dager Jesus'ek erijo- tzea zorí daula	24

VIII. Garbitokija, bixitzan eta erijotzan, kristiñabaren pozgafija. — S. Pedro'ren ukapena	28
IX. Garbitokiko neke-oñaze muetak. — Jesus'ek Kaifas'en etxean jasan ebazan lotsari ta atsekabeak	32
X. Garbitokija ta gauza txikijetzazko ardurarik-eza. — Pilatos'en aúfean Jesus azteftua	36
XI. Garbitokija ta geure autuetan dagergun arinkerija. — Jesus'en ixiltasuna....	40
XII. Garbitokija ta gauza onetarako nagikerija. — Jesus Bařabas'egaz bařdindua.....	44
XIII. Garbitokija ta gixozteatzazko lotsořkerija. — Jesus'en zigofkadak eta odola.	48
XIV. Garbitokija ta eretxi onaren gurari erua. — Jaunaren arantzazko burestun eta soñeko gořija	52
XV. Garbitokija ta gure eruapenik-eza. — Ecce homo	56
XVI. Garbitokija ta ildura edo laztasunen bilduřa. Jaunak kurutzeari egin eutsan aguřa	60
XVII. Garbitokija ta maitetasunaren kaltezko utsegiteak. — Jesus eta bere Amaren aurfkikunde samiņa	64
XVIII. Garbitokija ta ogasunen erabilkuntza okeřa. — Jesus'en biloiztasuna ...	68
XIX. Garbitokija ta Mesa santua. — Jesus kurutzean untzaua.....	72

XX. Garbitokija ta sañitan Jauna-añtzea. —Jesu-Kristo'ren zazpi itzak.....	77
XXI. Garbitokija ta azkespen edo parka- menak. Jaunaren erijotzea	81
XXII. Garbitokija ta eskesari edo limos- nea. —Jesus'en bulañeko zaurija.....	85
XXIII. Garbitokija ta ildura edo laztasu- nak. —Jesus'en gorpua bere Amaren al- tzuan	90
XXIV. Garbitokija ta eruapena.—Jesus' en gorpua usaintzea	94
XXV. Garbitokija ta maitasunezko egiki- xunak. —Jesus'en gorpua obiratzea.....	98
XXVI. Garbitokija ta jañabide ona. — Abraan'en ilundegiko arimai ikeñkun- dea	103
XXVII. Garbitokija ta arima gaxuen al- dezko ziñeskaña. —Ama nekatuaren ba- kañtegiko atsekabea.....	107
XXVIII. Garbitokija ezta aintzat ez añ- tzeko gañzea. —Jaunaren beñbizkundea.	112
XXIX. Garbitokijatzazko bilduñ lañegija. —Jesus beñbiztuaren agerkundeak	116
XXX. Garbitokija guretzat opagañi be ixan daiteke. —Jaunaren zerura igokun- dea	120

IRARÜTS ANDITXUENAK

<u>Ingoski</u>	<u>diño</u>	<u>esan bear' leuke</u>
6	andijanagaz	andijenagaz
13	zeura	zerura
14	zeforek	zeroerek
»	a'derako	alderako
24	añazten	añazoten
43	zinoyazala	ziñoyazala
48	arimearantzat	arimearentzat
73	bariztetan	bañiztetan
85	laguntzia	laguntza
92	¡«O neure» baño len II
»	gogoñenak ba	gogoñenak be



JAUNGOIKO-ZALE'N IDAZTIJAK

Zorundun Befiotxoar Balendiñ'en bederatziuruna, ta bixitz edesti labufa. Banaka 10 zentimo. Befogetamañ, amañ efial.

Ama Maria-Sorkundiaren bederatziufena. Banaka 15 zentimo. Befogetamañ, ogeta bi efial.

San Antonio Abata'ren bederatziufena. Banaka 15 zentimo. Befogetamañ, ogeta bi efial.

Edesti Jaungoya (Historia Sagrada). Banaka 40 zentimo. Befogetamañ irurogei efial (bazkidiei erlen bakotxa).

Loyola'tar Iñaki deunaren bederatziufuna. Banaka 20 zentimo. Befogetamañ, ogei efial.

Garbiñokiko Arimaen Iñá. Iru bederatziufen eta iru-ufen bat. Banaka 40 zentimo. Asko artu ezkeró efial banan.

Saltzen dira idazti-denda edo librerija gustijetan; eta Zornotza'n (Amorebieta) Jaungoiko Zalen Artez-karija'renian.

